KOLDO ELEIZALDE

lehiaketak 2025

XL. edizioa



IPUINA - POESIA - BERTSOA - KOMIKIA

Bergarako Udala

KOLDO ELEIZALDE
lehiaketak 2025
XL. edizioa

IPUINA - POESIA - BERTSOA - KOMIKIA

Bergarako Udala

Euskara zerbitzua

Argitaratzailea: Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzua
Azaleko irudia: Jon Balentziaga
Diseinua eta maketazioa: Gertu Inprimategia. Oñati
Inprimategia: Gertu Inprimategia. Oñati
Lege gordailua: SS 42-2015

Aurkibidea

SARRERA ++7

IPUINA / POESIA

1. TALDEA:
Saria: **Amets bat.** *Julen Burgaña* ++++++++++++++++++++++++++++++++++++ 9
Saria: **Unax eta itsasoa.** *Oier Lonbide*++++++++++++++++++++++++++++++ 13
Saria: **Lila sorgintxoa.** *Garazi Villasuso* ++++++++++++++++++++++++++++ 17

2. TALDEA:
Saria: **Iluntasunari beldurra.** *June Beitia* ++++++++++++++++++++++++++++ 21
Saria: **Koldoren desioa.** *Ane Beloki* +++++++++++++++++++++++++++++++++ 25
Saria: **Ziba harrigarria.** *Hodei Gallastegi* ++++++++++++++++++++++++++++ 29

3. TALDEA:
Saria: **Izartxo eta laminak.** *Malen Irazola* ++++++++++++++++++++++++++++ 31
Saria: **Kami eta Hami.** *Anouk Izagirre* ++++++++++++++++++++++++++++++ 33
Saria: **Mendi berezia.** *Xune Juaristi* +++++++++++++++++++++++++++++++++ 47

4. TALDEA, IPUINA:
1. saria: **Oreka.** *Ekia Mendieta* ++++++++++++++++++++++++++++++++++++ 51
2. saria: **Etxetik urrun.** *Jone Lizaur* +++++++++++++++++++++++++++++++ 57
3. saria: **Mafia Capone.** *Ane Lobato* +++++++++++++++++++++++++++++++++ 63

4. TALDEA, POESIA:
1. saria: **Poema sorta**. *Elixabete Gabilondo* ++++++++++++++++++++++++++ 71

5. TALDEA, IPUINA:
1. saria: **Galda eta Mes.** *Asier Iparragirre* ++++++++++++++++++++++++++ 75
2. saria: **Erruaren orroak.** *Ione Fernandez* ++++++++++++++++++++++++++ 91
3. saria: **Bi txerrikumeak.** *Jabier Martinez* ++++++++++++++++++++++++++ 97

5. TALDEA, POESIA:
1. saria: **Pertsona ederrak.** *Selene De Los Reyes* ++++++++++++++++++++++ 105
2. saria: **Egun gris eta urdinak.** *Leire Martin* ++++++++++++++++++++++++ 111
3. saria: **Amaren malkoak.** *June Tabares* ++++++++++++++++++++++++++++ 117

AURKIBIDEA

BERTSOA

1. TALDEA:
Saria: **Gure bihurrikeriak.** *Aranzadi ikastolako 5-Bko ikasleak* ++++++++++++ 123
Saria: **Gurasoak.** *Elixabete Gabilondo, Martin Gabilondo eta Mariñe Gabilondo* 127
Saria: **Gabonak bertsotan.** *Mariaren Lagundia ikastolako 4. mailako ikasleak*++ 131
Saria: **Estereotipoak.** *San Martin Agirre herri eskolako 5-Bko ikasleak*++++++++ 135

KOMIKIA

1. TALDEA:
Saria: **Galtzerdi galduen txokoa.**
Itzal Alvarez, Zorione Fernandez eta Maddi Lopez ++++++++++++++++++++++ 139
Saria: **Bit saguzar itsua.** *Jon Larrañaga*++++++++++++++++++++++++++++++ 151

2. TALDEA:
Saria: **Graffitiak.** *Eider Bote, Maddi Torres eta Alaia Zabalo* +++++++++++++++ 155
Saria: **Ikuskizun berezia.** *Maren Cenitagoya eta Ane Urzelai* ++++++++++++++ 159
Saria: **Elkarlanean aurrera.** *Beñat Egidazu eta Liher Sanchez* ++++++++++++++ 163

3. TALDEA:
1. saria: **Jon Maia tabernan.** *Maite Txintxurreta* ++++++++++++++++++++++ 167
2. saria: **Ordua** *Gari Garitano* ++++++++++++++++++++++++++++++++++++ 171

Hitzaurrea

Koldo Eleizalde literatura lehiaketak 40 urte betetzen dituen honetan, parte hartzaileei zorionak emateaz gain, antolatzaileak ere zoriondu nahiko nituzke. Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuan lehiaketa honen mesedetan, urtero buru belarri lanean aritu direnak, alegia. Urtez urte egindako lanari esker, bizirik darrai eta.

Lehiaketa badoa adinez nagusitzen, baina ez zaizkio zimurrik ezta ile zuririk atera; gazte jarraitzen du. Egindako bidea pozez begiratzen du eta etorkizuneko erronka berriei heltzeko gogotsu dago. Ez ditu betiko bidelagunak alde batera utzi nahi, eta gogo biziz jasotzen ditu kide berriak. Hauei guztiei esker, sasoi betean dugu lehiaketa.

Zorionak berriz ere irabazle guztiei eta eskerrik asko parte hartzaile guztiei ere.

Eider Usobiaga Isazelaia
Euskara Zerbitzuko Batzordeburua



Aurkibidea <<

IPUINA

Lehenengo taldea

Sariduna

Egilea: ***Julen Burgaña***

IZENBURUA

Amets bat



/ Ipuina

AMETS BAT

Txomin nire lagunik onena zen. Mutiko jatorra eta alaia zen, baina egun batean, zoritxarrez, gaixotu egin zen.

Egun hartatik aurrera, minez pasatzen zituen ordu asko, eta ospitalera joan behar izaten zen mina kentzera.

Ni sarri joaten nintzen nire amarekin Txomin bisitatzera, eta poz-pozik ipintzen zen ikusten ninduen bakoitzean.

Orduak ematen genituen elkarri kontuak kontatzen eta ikastolan gertatutako gauza guztien berri ematen nion.

Txomin gustura egoten zen eta arreta handiz entzuten zituen esaten nizkion gauza guztiak.

Etxera joateko ordua heltzen zitzaigunean, Txominen begiak malkoz betetzen ziren. Esaten zidan bere eguneko momenturik onena lo egiteko momentua zela, ametsen munduan erabat murgiltzen zen unea. Mundu hartan ez zegoen minik, ez tristurarik, ez gaixotasunik. Mundu hartan dena zen zoriontasuna, dena barrea, gauza onen unibertsoa. Gaixotasunak gauza on guzti horiek lapurtu zizkion, ez, ordea, amets egiteko askatasuna.

Bazirudien batzuetan hobera egiten zuela, baina hilabete asko borrokan eman ondoren, bere gorputzak ezin izan zuen gehiago. Gau batean, begiak itxi eta ez zituen berriro zabaldu.

Pena handia hartu nuen baina, beste alde batetik, lo-aro luze hartan zoriontsu zela banekien.

Orain ere askotan egoten gara elkarrekin, ametsen mundua gurea baita.

Aurkibidea <<

IPUINA
Lehenengo taldea
Sariduna

Egilea: ***Oier Lonbide***

IZENBURUA

Unax eta itsasoa



/ Ipuina

UNAX ETA ITSASOA

Bazen behin Unax izeneko mutiko bat. Itsaso ondoko herri txiki batean bizi zen.

Aita arrantzalea zen eta goizean goiz joaten zen itsasora. Lana gogorra zen, baina Unaxen ametsa aita bezala arrantzale izatea zen.

Beti esaten zion:

—Aita, zurekin joan nahi dut!

Baina aitak ezetz esaten zion.

Egun batean, aitak besoan min hartu zuen, baina itsasora joan beharra zeukan. Beraz, Unaxi laguntzeko eskatu zion.

Unax poz-pozik jarri zen. Arropak jantzi, gosaldu eta aitarekin batera etxetik irten zen.

Itsasontzian hotz egiten zuen eta, gainera, dena ilun zegoen, gaua zen.

Olatuen mugimenduarekin Unaxi tripako minak hasi zitzaizkion.

Eguzkia irten eta sareak bota zituzten. Han egon ziren orduak zain. Portura iritsi ziren arrainik harrapatu gabe.

Unax oso nekatuta zegoen, baina bere aurpegian poztasuna nabari zen. Egun gogorra izan arren, bere ametsa lortu zuen betetzea: arrantzale izatea.

Unai irrikan zegoen berriz ere itsasora itzultzeko, itsasoko usaina eta haizea sentitzeko. Baina, batez ere, bere aitarekin denbora gehiago egoteko.

Aurkibidea <<

IPUINA
Lehenengo taldea
Sariduna

Egilea: ***Garazi Villasuso***

IZENBURUA

Lila sorgintxoa



/ Ipuina

LILA SORGINTXOA

Lila sorgintxo ona baso liluragarriz inguratutako herri txiki batean bizi zen.

Ipuinetako sorginek ez bezala, Lilak bihotz oso handia zuen eta besteei laguntzea gustatzen zitzaion.

Lila perretxiko etxe txiki batean bizi zen. Bertan igarotzen zituen egunak, animalia zaurituak sendatzeko edabe magikoak eta basoko lorerik ederrenak hartzeko sorginkeriak prestatzen.

Bere lagunik onena Gauerdia izeneko katu beltz bat zen, eta beti laguntzen zion.

Egun batean, Lilak jakin zuen herria triste zegoela, hura zeharkatzen zuen ibaia lehortu egin zelako.

Zelaiak lehor zeuden eta animaliak egarrituta.

Lilak, bere makila magikoa eskuan zuela, laguntzea erabaki zuen.

Bere erratz gainean hegan egin zuen ibaiaren jaiotzara, eta enbor erori handi batek uraren bidea mozten zuela ikusi zuen.

Sorginkeria batekin enborra zubi bihurtu zuen eta bere bidea jarraitu zuen. Ibaiak berriro bete ziren, zelaiak berriro berde jarri ziren eta animaliek ur freskoa edan zuten.

Herriko biztanleek festa bat antolatu zuten Lila sorgintxo onaren omenez.

Lilak, irribarre bat aurpegian zuela, laguntzeko gai izanagatik pozik sentitu zen. Ikasi zuen magia indartsuena gauza onak egiteko erabiltzen dena dela eta ezberdina izateak ez duela esan nahi txarra zarenik.

Ordutik aurrera, Lilak bere ahalmenak erabiltzen jarraitu zuen, behar zuten guztiei laguntzeko, eta baso liluragarriko sorgintxorik maitatuena bihurtu zen.

Aurkibidea <<

IPUINA
Bigarren taldea
Sariduna

Egilea: ***June Beitia***

IZENBURUA

Iluntasunari beldurra



/ Ipuina

ILUNTASUNARI BELDURRA

Bazen behin neskatila bat Nora deitzen zena. Nora oso oso beldurtia zen eta iluntasunari beldurra zion.

Gaua heldu zen eta ohera joan zen.

Norak, ohera sartu aurretik, iluntasunari zion beldurragatik, egunero-egunero, ohe azpian begiratzen zuen, baina ez zuen inoiz ezer ikusten.

Gau batean, egunero bezala ohe azpian begiratzera zihoala, itzal bat ikustea iruditu zitzaion. Gau horretan ez zuen lorik egin, eta pentsatu, pentsatu eta pentsatu, irtenbide bat bururatu zitzaion.

Irtenbidea ohe azpian argi bat jartzea izan zen! Argia dagoen lekuan ez dagoelako iluntasunik, ezta itzalik ere.

Egun horretatik aurrera lasai-lasai eta beldurrik gabe lo egiten hasi zen.

Aurkibidea <<

IPUINA
Bigarren taldea
Sariduna

Egilea: ***Ane Beloki***

IZENBURUA

Koldoren desioa



/ Ipuina

KOLDOREN DESIOA

Bazen behin, orain dela bi urte, Koldo izeneko mutiko txiki eta lodi bat. Aroa izeneko arreba on eta trebea zuen.

Biak etxe zoragarri batean bizi ziren. Koldok gustuko zuen tronpeta jotzea. Aroak ere gustuko zuen hori. Aroa benetan altua eta argala zen. Koldo ez zen batere zoriontsua. Koldo beti triste zegoen. Aroak beti laguntzen zion, baina Koldo oraindik triste sentitzen zen.

Koldo, egun batean, Oñatira bizitzera joan zen. Oñatiko eskolara joan zen ikastera. Gelako umeek burla egiten zioten itxuragatik. Aroak lagundu egiten zion beti.

Goiz batean, bat-batean, ipotx bat gerturatu zitzaion. Oso triste zegoenez, ipotxak desio bat eskatzeko esan zion:

—Kaixo! Ni Koldo naiz eta altuagoa eta argalagoa izan nahiko nuke.

—Bai, noski —erantzun zion ipotxak—. Hiru, bi, bat, desioa beteta!

Desioa egia bihurtu zen. Koldo korrika-korrika ispilura joan zen, poz-pozik. Baina ispiluan ikusterakoan, aurpegia tristatu egin zitzaion.

Ipotxak Koldori galdetu zion orduan:

—Gustatu zaizu?

Koldo negarrez hasi zen, ez zitzaiolako batere gustatu. Koldo gosaltzera joan zen eta Aroak esan zion:

—Nor zara? Alde hemendik!

Eskolara joan zirenean, Koldo komunera joan zen negar egitera. Ipotxak Koldori bigarren aukera bat eman zion. Koldok lehen zen bezalakoa izan nahi zuen, eta bera zen modukoa bihurtu zen berriz.

Eta lau katu eta bost txito, ipuin hau bukatu eta kito.

Aurkibidea <<

IPUINA
Bigarren taldea
Sariduna

Egilea: ***Hodei Gallastegi***

IZENBURUA

Ziba harrigarria



/ Ipuina

ZIBA HARRIGARRIA

Bazen behin Matxiki izeneko ziba bat, ostadarraren kolorekoa.

Egun batean, motxila hartu zuen eta ikastolara joan zen. Han urduri zegoen, beti bezala, beste ziba guztiak plastikozkoak zirelako, eta bera zelako egurrezko bakarra. Desberdina sentitzen zen.

Arazoa zen egurrezko zibak punta apurtuta zuela. Oso triste zegoen horregatik. Jolas-orduan, gainera, hamarretakoa jaten zegoela, gelakideek ziba bultzatu zuten. Matxikiren hamarretakoa lurrera bota zuten eta oso triste jarri zen.

Etxera joan zenean amari dena kontatu zion. Hurrengo egunean berdina gertatu zen.

Ikastolara bidean, aitona ziba bat ikusi zuen kalean. Aitonak negarrez ikusi zuen Matxiki.

—Zer gertatzen zaizu? —galdetu zion aitonak.

—Nire gelakideek iraindu egiten naute punta puskatuta dudalako —erantzun zion triste.

—Zatoz nire tailerrera eta nik konponduko dizut punta hori. Tximista baino azkarrago joango zara!

Ziba pozik joan zen aitonarekin. Azkar konpondu zion punta.

Matxikik eskerrak eman zizkion eta poz-pozik ikastolara joan zen, abiadura bizian.

Inoiz gehiago ez zioten irainik egin.Txapelketak egiten hasi zen eta hain azkar mugitzen zen, Tximista ziba deitzen ziotela. Aitona zibari esker, Matxiki zoriontsu da.

Aurkibidea <<

IPUINA

Hirugarren taldea

Sariduna

Egilea: ***Malen Irazola***

IZENBURUA

Izartxo eta laminak



/ Ipuina

IZARTXO ETA LAMINAK

Bazen behin Izartxo izeneko neskatxo bat.

Izartxok 10 urte ditu, 1,35 neurtzen du eta ile hori eta luzea du, eta begi urdin argiak. Oso eskuzabala da eta ausarta ere bai, baina batzuetan erraz beldur daiteke.

Eta gaur bere istorioa kontatuko dugu:

Egun lasai eta normal batean, Izartxoren gurasoek basora joateko plana egin zuten eta Izartxo gogo handiz joan zen.

Ordu batzuk pasa eta gero, Izartxok bazkaldu eta azkar batean basora abiatu zen, ilusio handiz. Basora heldutakoan, Izartxoren gurasoek manta batzuk jarri eta janari pixka bat prestatu zuten meriendatzeko.

Izartxok, merienda bukatu bezain azkar, jolastera abiatu zen, eta orduak eta orduak egon zen zuhaitz eta harrietan jolasean.

Izartxo bueltatutakoan, etxera joan, afaldu eta azkar batean lo hartu zuen.

Hurrengo egunean, Izartxok gosaltzen zuen bitartean, gurasoei esan zien basora joateko plana egin nahi zuela eta gurasoek azkar esan zuten baietz.

Izartxo eskolatik bueltatu eta azkar batean basora abiatu zen.

Basora heldu orduko, Izartxok ez zuen minutu bat bera ere itxaron jolastera joan baino lehen. Izartxok orduak pasatzen zituen jolasean eta ez zen inoiz aspertzen.

Azkenean, Izartxo egunero joaten zen basora nola edo hala; ez zen egun bat bera ere geratzen basora joan gabe.

Egunak pasa eta pasa egiten ziren eta Izartxok bere basora joaten jarraitzen zuen, eskolatik atera eta azkar batean joaten zen gurasoekin.

Hilabeteak pasatu ziren eta ia konturatu gabe negua heldu zen.

Laster, Izartxoren urtebetetzea zetorren eta gogotsu zegoen basoan ospatzeko ideiarekin. Abendua amaitzear zegoen, eta Izartxok urtarrilaren 2an betetzen zituen urteak.

Izartxok gurasoekin hitz egin zuen bere urtebetetzea basoan ospatu nahi zuela esanez, baina gurasoek ezetz esan zuten.

Izartxo, haserre, motxila hartu eta basora abiatu zen gurasoek pentsatuko zutenari kasu egin gabe. Basora heldu orduko, Izartxo konturatu zen jada berandutu egin zitzaiola eta bueltatu beharra zuela.

Baina gurasoekin haserre zegoela gogoratu zuen eta etxera bueltatzea gurasoei arrazoia ematea zela pentsatzen zuen.

Hoztu egin zuen eta Izartxok ez zuenez arropa gehiegi, basoaren barruraino sartu eta txabola moduko bat egiten hasi zen.

Txabola bukatu orduko, Izartxo gosetuta eta egarrituta zegoen, eta uraren eta janariaren bila joan zen. Orduak pasa ziren Izartxo ibiltzen hasi zenetik eta egarrituta zegoenez, jada ia ez zuen indarrik.

/ Ipuina

IZARTXO ETA LAMINAK

Baina, bat-batean, Izartxo laku batera heldu zen eta berak ere sinisten ez zuen arren, azkenean, ura topatu zuen.

Izartxok ur pila bat edan ondoren, lakuaren ondoan sagarrondo bat topatu zuen.

Izartxok ez zuen sinisten nola momentu batean dena topatu zuen, baina sagar batzuk jaso, ur pixka bat hartu eta txabolara bueltatu zen.

Txabolara heldu zenean, Izartxo bere laminen ipuina irakurtzen hasi zen; ipuina "Laminak basoan" deitzen zen.

Izartxoren liburuan laminak lakuetan agertzen direla jartzen zuen, ilargi beteko gauetan.

Izartxok zerura begiratu zuen eta konturatu zen ilargi beteko gaua zela, eta berehala lakura joan zen berriro. Heldu zenean ez zuen askorik ikusten, baina zarata eta pausuak entzuten zituen. Izartxok motxilan zuen linterna atera zuen eta uretan zerbait zegoela iruditu zitzaion.

Uretan zegoena gerturatu eta gerturatu egin zen eta laster uretatik atera zen. Izartxok beldur handia sentitu zuen.

Emakume bat zen, 1,70 neurtzen zuen, ile beltza eta motza zuen eta begi marroi oso ilunak. Izartxok beldurtuta galdetu zion:

—Zu nor zara?

Eta emakumeak hala erantzun zion:

—Lamina bat naiz, neskatxa. Eta zu?

—Ni Izartxo naiz.

—Zer egiten duzu baso honetan gauez?

—Etxetik joan naiz, nire gurasoekin haserretu naiz eta.

—Eta non egingo duzu lo?

—Txabola bat egin dut.

—Non?

—Hor nonbait, pixka bat aurrerago.

—Ongi da, umetxo. Eta ez duzu zure etxera bueltatu nahi?

—Egia esanda, bai; baina ez dakit oso ongi zein den bidea.

—Nik lagunduko dizut, laminak magia egiten dakigu.

—Baina nola lagunduko didazu?

—Begira, laztana. Ikusten duzu laku hau?

—Bai, noski.

—Ur hori magikoa da, bidea erakutsiko dizu.

—Ze ongi! Emango didazu pixka bat?

—Noski baietz, laztana; baina zerbait nahi dut trukean.

—Zer da?

/ Ipuina

—Zure ilea eta begiak nahi ditut.

—Zer?! Ez dizkizut nire ilea eta begiak emango! Zerekin geratuko naiz ni?!

—Nireak emango dizkizut, lasai.

—Ezta pentsatu ere!

—Zeuk ikusi, umetxo. Baina ni egun bakarra nago hemen eta gaua amaitzen denean joan egingo naiz.

—Baina zure laguntza behar dut!

—Esan dizut baietz! Baina zeuk ere zeure partetik zerbait jarri beharko duzu.

—Ez zait bidezkoa iruditzen!

—Niri, ordea, bai.

—Baina nik ez ditut nire ilea eta begiak berreskuratuko?

—Noski ezetz, nireekin geratuko zara betiko.

—Eta badago ur magikoa lortzeko beste moduren bat?

—Ez, ni joandakoan ura magiarik gabe geratuko da.

—Baina nik ez dut nahi zure ile motz eta iluna, ez ditut nahi zure begi marroi eta zatarrak.

—Ba, horrexegatik nahi ditut zureak! Zure ile hori eta argia eta zure begi urdin argiak oso ongi geratuko zaizkit.

—Eta beste pertsona bat ekartzen badizut?

—Begira, umetxo, azkeneko aldiz esango dizut: zureak nahi ditut eta bestela ez dago akordurik!

—Bale, bale… Ongi da.

—Beraz, aldaketa egingo dugu?

—Ez dakit…

—Begira, umetxo, ez iezadazu denbora galarazi!

—Baina ez dakit…

—Begira, orain goizeko 03:30 dira eta 07:15ean eguzkia irtengo da; goizeko 07:00ak arte duzu denbora erabakitzeko.

—Eta berandu iristen banaiz?

—Berandu heltzen bazara ez zara inoiz etxera bueltatuko.

—Baina ezin nauzu horrela utzi!

—Agur, umetxo! 07:00etan hemen nahi zaitut!

—Baina itxaron! Ez utzi horrela!

Eta, horrela, Izartxo bakarrik geratu zen lakuaren alboan, zer egin jakin gabe.

Izartxo, triste, bere txabolara bueltatu zen, eta bere laminen liburua irakurtzen jarraitu

/ Ipuina

IZARTXO ETA LAMINAK

zuen; lamina nola engainatu jakin nahi zuen.

Liburuan, bi lamina mota ezberdin daudela jartzen zuen: onak eta politak, eta zatarrak eta txarrak.

Orduan, Izartxo konturatu zen lamina txar batekin egin zuela topo, eta pentsatu zuen lamina on batek ur magiko pixka bat emango ziola arazorik gabe.

Irakurtzen jarraitu zuen eta liburuan laminak taldean ibiltzen direla jartzen zuen, nahiz eta Izartxok ikusi zuen lamina bakarrik zegoen.

Ordurako, Izartxo zerbait susmatzen hasia zegoen eta berriz ere joan zen lakura.

Izartxo lakura heldu zenean, konturatu zen lamina gehiago zeudela, nahiz eta bi toki ezberdinetan egon eserita: batzuk lakuaren eskuinaldean eta beste batzuk ezkerraldean.

Izartxo konturatu zen eskuinaldean zeuden laminek ile horia eta luzea zutela eta begi argi eta berdeak; ezkerrekoek, berriz, ile motza eta beltza zuten eta begi marroi eta ilunak.

Izartxo eskuinaldeko laminengana gerturatu eta hala galdetu zien:

—Kaixo, ni Izartxo naiz! Eta zuek?

Lamina batek horrela erantzun zion:

—Kaixo, laztana! Zer egiten duzu hemen?

—Etxetik joan naiz gurasoekin haserretu naizelako.

—Begira, gu laminak gara. Ikusi al duzu inoiz beste laminarik?

—Bai, lehen beste batekin egin dut topo.

—Ze ongi! Norekin egin duzu topo?

—Ba, orain ez dut ikusten.

—Nolakoa zen?

—1,70 inguru neurtzen zuen, ile motza eta beltza zuen eta begi marroi eta ilunak.

—Bere izena esan dizu?

—Ez. Zergatik?

—Joan beharra daukazu, laztana.

—Zer gertatzen da?

—Lamina txar batekin topatu zara.

—Badakit, nire liburuan jartzen du.

—Eta zer esan dizu?

—Ez zidala ur magikorik emango ez banizkion nire begiak eta ilea ematen.

—Noski, gure taldean sartu nahi du.

—Baina nik oraindik ur magikoa behar dut.

/ Ipuina

—Lasai, umetxo; ur magikoa bakarrik lamina onek hartu dezakegu.

—Baina berak ez zidan hori esan!

—Lasai! Nik emango dizut pixka bat, laster eguzkia dator eta!

—Eskerrik asko, lamina!

Laminak ur pixka bat jaso eta hala esan zion Izartxori:

—Pixka bat edandakoan, etxerako bidea jakingo duzu.

—Eskerrik asko, benetan! Berriz elkar ikusiko dugula espero dut.

—Noski, berriz elkar ikusiko dugula! Hau zure basoa dela uste dut.

—Beno... Ez da nirea, baina askotan etortzen naiz.

—Ilargi beteko gauetan hemen itxarongo zaitugu, hemen gaude beti.

—Bale, beti etorriko naiz.

Izartxok laminak agurtu, ur magikoa edan eta laster etxera abiatu zen.

Orduak pasa ziren, baina azkenean Izartxo etxera bueltatu zen. Gurasoak oso kezkatuta zeuden, baina Izartxo heldu zenean denak oso pozik jarri ziren.

Eta horrela bukatu zen Izartxoren istorioa basoan. Oraindik, egunero joaten jarraitzen du, eta ilargi beteko gauetan lamina onekin elkartzen da.

Aurkibidea <<

IPUINA

Hirugarren taldea
Sariduna

Egilea: ***Anouk Izagirre***

IZENBURUA

Kami eta Hami



/ Ipuina

KAMI ETA HAMI

Bazen behin Kami izeneko mutil bat. Oso alaia zen. Bere herria Sarrio deitzen zen. Etxeak oso handiak eta zabalak ziren, jendeak modan zegoena janzten zuen eta herrian beti egoten zen musika edota zarata.

Kami ostiral goizean geratuta zegoen bere lagun Elenerekin, bizikletaz ibiltzeko.

—Ea, Kami! Ea nor heltzen den errekara lehena —esan zuen Elenek.

—Ongi! —erantzun zuen Kamik.

Kami errekatik pasatu zen, irabazi egin zuela garrasi eginez, eta, gainera, ziztu bizian pasatu zuen erreka hura.

Bat-batean…jklńńlpjfhckmflkjnvkjll!!!

—Kaixo, mutil, zertan ari zara? —galdetu zion atso zahar batek.

—Baina, non demontre nago? —esan zuen Kamik, emakumea behatuz.

—Sarrion zaude —erantzun zion atsoak.

—Ezin da izan! Sarrio nire herria da eta!!!

Kamik ingurura begiratu zuen. Dena oso desberdina zen. Etxeak txikiak eta estuak ziren, kalean ez zen zaratarik entzuten, jendea aspaldiko moduan zihoan jantzita…

Orduan, ume gazte bat gerturatu zitzaion:

—Kaixo, zu nor zara? —galdetu zion baserritar jantzita zihoan mutikotxo batek.

—Kaixo, ni Kami deitzen naiz, eta ez dakit sinistuko didazun…, baina… itxaron… ze urtetan gaude?

—1934an —erantzun zion.

—Zer?? Zer??? 1934??? Baina…

—Zer esan behar zenidan? Agian zer, ez nizula sinistuko???

—Zera…, ni 2025ekoa naiz. Horrek zer esan nahi du, denboran atzera egin dudala?

—Jajajajaja… eta nik sinistu. Ba al dakizu nire aitak Marten lan egiten duela, jajajajaja… —egin zion umeak iseka.

Kamik herri hura ikusteko gogoa zuenez, esploratzera joan zen, bere benetako urtera nola itzuli jakiteko moduren bat topatzera. Kale zahar batzuk igaro ondoren, plaza batera heldu zen. Ez zen oso handia, ezta oso txikia ere. Bat-batean zurrumurru batzuk entzun zituen, baina ez oso fuerte, lurretik bazetozen bezala.

—Ps, ps! Bai, bai, zu! Zu, gerturatu hona!

—Zera… Ni? —esan zuen Kamik ingurura begira

—Bai, zu! Gerturatu zaitez zuhaitz txiki honetara.

Kami zuhaitz hura non zegoen begiratzen hasi zen, banku luze eta zabal baten alboan zuhaitz bat ikusi zuen arte. Berari hitz egiten zegoen izaki hori topatzen zebilen.

/ Ipuina

KAMI ETA HAMI

—Bai hemen, zure hankaren ondoan.

Kamik bere zapatilara begiratu eta izaki ñimiño bat ikusi zuen.

—Kaixo!!!! Nola da zure izena?

—Aizu, ez dakit nor zaren ezta zer zaren ere, baina utz nazazu bakean, zurekin hitz egitea baino gauza garrantzitsuagoak dauzkat eta egiteko—esan zion haserre Kamik.

—Nire urtera itzultzeko moduren bat topatu behar dut —esan zuen bere baitan.

—Ez pentsatu gaizki nitaz, baina ibiltzen nindoala mutiko batekin hitz egiten ikusi zaitut eta pixka bat entzun dut. Badakit, edo behintzat uste dut, denboran atzera egin duzula. Itxaron, lehenengo nire burua aurkeztuko dizut.

Kami harri eta zur geratu zen izakiaren hitzekin.

—Ni Hami naiz eta Anbotoko Mariren etxea garbitzen duen bat naiz ni —esan zion esku txiki-txiki hura gorantz jasotzen zuen bitartean.

—Zera… Ni Kami naiz eta zuk esan duzun bezala denboran atzera egin dut.

Kamik dena kontatu zion Hamiri eta Hamik laguntzeko prest zegoela esan zion. Berak bazekiela denboran aurrera egiteko modu bat. Marik, mendiko jainkosak, kontatu ziola urtean birritan tximistetatik denboran aurrera egiten duela.

—Zer esan nahi duzu horrekin? —galdetu zion Kamik

—Neuk galdetu ahal diodala noiz egingo duen hori eta berarekin, ezkutatuta noski, joan ahalko zarela, agian.

Arratsalde osoa eman zuten plan hura prestatzen. Gauean, Kamik herrian egin zuen lo, Hamik Mariri noiz joango zen etorkizunera galdetzen zion bitartean. Goiza heldu zen, eta Kami esnatu orduko, bere tripa gainean zuen Hami.

—Kami, bi notizia ditut: bat txarra eta bestea ona. Zein kontatuko dizut lehenago?

—Ona hobe! —erantzun zion Kamik aharrausi egiten zuen bitartean.

—Ondo! Ona da bi aste barru joango dela Mari etorkizunera, eta bitartean badaukadala zuk lo egiteko lekua; txarra da Mari ez dela joango zure urtera, 2028ra baizik.

—Perfekto! Espero dut zure ohea erosoa izatea, orain bizkarreko mina eduki behar dudan sentsazioa daukat eta… Baina itxaron zerrrrrrrrr???? 2028? Baina ezin da izan!

—Kami, badakit, badakit! Behin, Marik kontatu zidan etorkizunera joaten denean tunel moduko batetik pasatzen dela eta, tunel horretan, zu zauden urtetik beste urte guztiak ikus daitezkeela eta salto bakarra eginez gero, nahi duzun urte horretara joan zaitezkeela. Zuk bakarrik adi egon behar duzu 2025 non dagoen ikusteko, eta listo.

—Perfekto, Hami!!!

Kamiri bi aste horiek oso luzeak egin zitzaizkion, bere ama, bere aita eta bere arreba ikusteko irrikan baitzegoen. Aste bat pasatu zen eta poliki-poliki 2025era itzultzeko eguna iristear zen. Hamik eta Kamik zerbait adostu zuten: Mariren atzean ezkutatzea.

/ Ipuina

Hurrengo gauean, Hamik Mariren kobazulora eraman zuen Kami. Hamik Mari entretenitzen zuen bitartean, Kami haren atzean ezkutatu zen. Bat-batean dena ilun jarri eta Mari garrasika hasi zen. Horren ondorioz, tunel hartara sartu ziren. Kamik Mariren txaketatik burua atera eta 1934 ikusi zuen eta urteak pasatzen eta pasatzen. Kami harri eta zur zegoen. Bat-batean 2023 ikusi zuen eta gero 2024 eta azkenik 2025.

Kamik hura ikustean salto egin zuen. Sentsazioa oso arraroa izan zen, igerilekura botatzea bezala, baina fuerteago. Bat-batean gaua zen eta bere herriko zubi hartan zegoen.

—Barkatu, barkatu ze urtetan gaude? —galdetu zion ikusi zuen lehen pertsonari.

—2025ean. Ai, mutiko hauek…!! —erantzun zion alde eginez.

—Bai, bai! Lortu dut! —saltoka eta saltoka hasi zen, eta konturatu zen ez ziola denborarik eman Hamiri eskerrak emateko. Lehenengo gauza egin zuena bere etxera joatea izan zen. Lagun on bat egin zuela jabetu zen Kami, eta pozik lokartu zen egun hartan.

ETA HALA BAZAN ETA EZ BAZAN,
SAR DADILA KALABAZAN,
ETA ATERA DADILA
SARRIOKO PLAZAN.

Aurkibidea <<

IPUINA

Hirugarren taldea

Sariduna

Egilea: ***Xune Juaristi***

IZENBURUA

Mendi berezia



/ Ipuina

MENDI BEREZIA

Euskal Herriko herri txiki batean, ez oso ezaguna, bazegoen mendi eder bat. Herriko jendeak oso ondo zaintzen zuen beraien mendi eder hori. Baina negua heltzen zenean, honek mendia zapuzten zuen, egindako lan guztia alferrik. Mendi normalentzat ondo dago negua heldu, hostoak jausi eta berriro hastea, baina mendi hura berezia zen, neguak kalte egiten zion. Urte horretan ondo zaindu behar zuten herritarrek mendia. Baina bazegoen mutil bat ez zitzaiona mendia inporta; Joritz deitzen zen eta 11 urte zituen.

—Ama, zergatik zaudete obsesionatuta mendiarekin? —galdetu zion Joritzek amari, egoera ikusita.

—Joritz, mesedez! Mendi hori oso sakratua da.

—Aaa… Banoa kalera —esan zuen, hozkailutik *Coca Cola* lata bat hartzen zuen bitartean—, ea mendia hain polita eta ederra den ikustera!

—Benetan? *Coca Cola* lata horrekin mendi berezira? Ez bota plastikorik mendian, e! Izpirituak daude, esaten dute atso zahar bat dagoela mendia zaintzen —esan zion amak, kezkatuta.

—Bai, eta atso horrek jan egingo nau. Zelako beldurra! —esan zuen Joritzek barre faltsu bat eginez, atetik irteten zen bitartean.

Asko ibili ondoren mendiaren puntara heldu zen. Egia esan oso polita zen mendia eta handik ikusten ziren paisaiak.

—Hala, ze polita! —esan zuen harrituta; baina gero konturatu zen mendi asko direla politak —. Zer nabil esaten? Mendi normal bat besterik ez da!

Amari kasurik egin gabe, amorruz, *Coca Cola* lata lurrera bota zuen eta mendian behera abiatu zen, amorratuta bere poltsikoan aurkitzen zuen guztia botatzen zuen bitartean. Bat-batean, haize bolada batek airean jarri zuen mutila; flotatzen ari zen, ez zegoen hegan egiten, leku berean zegoen, ez zen mugitu ere egin.

—Baina… Zer ari zait gertatzen? E, e, e, e! Eta munstro bilakatzen banaiz? Eta oraindik okerragoa, hilda banago? —esan zuen bere gorputza ukitzen zuen bitartean, hilda ote zegoen egiaztatzeko.

Beste haize bolada batek hegan eraman zuen, baina oraingoan benetan ari zen hegan egiten, ez zegoen flotatzen bakarrik; hegan zihoan eta ia-ia lainoak ukitu zitzakeen. Hala ere, poliki-poliki jaisten hasi zen, etxe zahar batera iritsi zen arte. Etxeko atea zabalik zegoen eta barruan mahai handi bat zegoen. Berak botatako zabor guztia zegoen mahai gainean.

—Baina… Nola liteke? Nire zabor guztia da! —esan zuen Joritzek, harrituta.

Bat-batean, ahots arraro bat entzun zen:

—Baaaaiiii! Zure zaborra da! Mendi honetan bota duzuna.

—Baina… Zein zara?

—Ni mendiaren zaindaria naiz

—Barkatu! Ez nuen pentsatzen mendia hain berezia zenik —esan zuen beldurtua—, ez

/ Ipuina

MENDI BEREZIA

nuen hori aitortu nahi.

—Hori da eduki behar duzun jarrera —esan zion; baina ez zuen atsoaren ahotsarekin esan azken esaldi hori.

—Ama, zu al zara? —esan zion Joritzek atsoari.

—Bai, Joritz, ni naiz —esan zion atsoak, maskara kentzen zuen bitartean.

—Baina, ama! Nola lortu duzu mozorro hori? —esan zuen Joritzek, harrituta.

—Beno, herri osoak lagundu dit hau dena antolatzen.

Orduan, herriko biztanle guztiak atera ziren ezkutatuta zeuden lekuetatik.

—Ama, orain ulertzen dut zein berezia den mendia. Baina galdera bat daukat, nola hasi naiz hegan?

—Hegan? Zer esaten zabiltza? Guk ez dugu ezer egin etxe honetatik kanpo.

—Ama, ez esan gezurrik, kar-kar-kar!

Joritzek egun hartan herritarrei lagundu zien mendiari laguntzen. Eta negua heldu zen, eta bukatu ere bai. Lortu zuten! Mendia lehen baino ederrago zegoen.

Eta katu, katu, ipuin hau da bukatu.

IPUINA
Laugarren taldea
1. saria

Egilea: ***Ekia Mendieta***

IZENBURUA

Oreka



/ Ipuina

OREKA

Hutsik. Hain beteta eta hainbeste zulorekin. Bakarrik. Hainbeste jendez inguratuta eta hain soila. Nola da posible? Zer gertatzen zait? Agian ni naiz arazoa, akatsa. Agian ez dut balio mundu honetarako. Agian joan beharra daukat eta inoiz ez itzuli. Benetan egon nahi al dut dudaz beteriko ziklo amaigabe honetan? Hainbeste gorroto dagoen lekuan? Galdera gehiegi eta erantzunik ez. Gorroto amaigabea maitasunik gabe. Zergatik? Dena utzi eta alde egingo banu… Desagertu… Agian mina amaituko litzateke, betirako. Baina ez bada horrela? Zer dago beste aldean? Hobea al da leku hori? Merezi al du sufrimenduak? Edo hobe dut joatea? Nork daki…

Ingurura begiratu eta dena da iluna, gainean lanpara bat dudan arren. Zergatik? Aurrera jarraitzea hain zaila den egun hauetan, babesleku baten bila nabil. Ekaitzetik gordeko nauen lekua, momentua, pertsona… Eguzkiaren argia eta beroa berriz sentiarazi dizkidana. Zer gertatzen ari zait? Bizitzaz aspertu naiz, baina ez dut nahi hiltzerik. Hari ikusezin batean ari naiz orekan, hortik aterako al naiz? Edo hobe dut amildegian behera egitea, eta dena ahaztea? Zurrunbilo batek harrapatu nau. Ez dakit zenbat denbora daramadan hemen. Agian ez naiz inoiz irtengo, agian bai. Nork daki? Norbait konturatu al da nire egoeraz? Ikusezina al naiz? Bakarrik hilko al naiz? Inork ez nau maite, gorrotoa besterik ez dago alde guztietan.

Bularrean estutasun bat dut, ezin dut arnastu. Malkoek ihes egiten didate, eta ezin dut eskuen dardara ekidin. Inguru guztia biraka daukat, ez dut ezer garbi ikusten. Denek diote lasaitzeko, ez arduratzeko. Baina nola egin hori, laino ilun horrek guztiz harrapatu zaituenean? Irtenbiderik ikusten ez denean? Dena beltza denean? Beso batzuk besarka nazatela nahi dut, lo hartu. Eta esna nazatela guztia pasa denean, ekaitzaren arrastorik gelditzen ez denean.

Eta beso haiek bereak balira hobe. Iraganean bezala estutuko banindute hobe. Baina badakit ezinezkoa dela, ez dela posible. Eta hori da eguneroko minaren arrazoia. Egunero ohetik jaikitzen uzten ez didana. Duela sei hilabete galdu nuen, eta ordutik ez naiz pertsona bera. Dena aldatu da, eta ez dut uste inoiz gauzak bere onera itzuliko direnik. Min hau betirako da, edo horrela sentitzen dut nik behintzat. Ez dut tunel ilunaren amaierako argirik ikusten. Ez daukat esperantzarik.

Egunero gogoratzen naiz beraz. Beraz eta berak utzi dizkidan momentu harrigarri guztiez. Hondartzara joan ginen hartaz gogoratzen naiz. Hain ongi pasa genuen! Hainbeste oroitzapen ditut aldi hartaz! Orduak pasa genituen olatuei begira, hareatan jolasean. Beste behin egin dut bidaia iraganera, oroitzapen hartara. Irudi guztiak oso argi ikusten ditut. Bere aurpegi zimurra, bere begi sakon eta berezi haiek. Ispilura begiratzen dudan aldiro ikusten ditudanak. Nahiz eta hori askotan ez gertatu. Ez naiz gai bertara begiratu eta nire begiak malkoz ez bustitzeko. Bere antz handia nuen, eta asko gustatzen zait nire alderdi hori. Begi berdinak genituen, urdina eta berdearen artekoak. Beti esan izan ohi zuen basoaren erdiko errekaren antzekoak zirela. Uretan hostoen berdea islatzen denean bezalakoak. Nik aldiz, beti erantzuten nion itsas azpiko algak zirela. Itsas korronteek laztantzean mugitzen diren horietakoak. Gure betiko eztabaida zen, amaigabe horietakoa, eta ez ginen inoiz ados jarri. Ile iluna ere berdina genuen, nahiz eta azken urteetan denborak berea guztiz zuritu. Txikitan beti nirea laztantzen zidan, istorioak kontatzen zizkidan bitartean. Hainbeste ordu

/ Ipuina

OREKA

pasa genituen hala! Argazki-albumak ditudan apalera zuzentzen naiz. Lehenago ere egon naiz bertan, baina ez dut lortu liburuxka eskuetan hartzerik. Ez bera joan zenetik. Nire hatzek badakite norantz jo, baina beldurrez dardara egiten dute. Ez naiz gai bere argazkirik ikusteko, beldur naiz. Ausardiaz albuma hartzen dut, damutu aurretik. Azala ireki eta bere irudia ikusten dut, hain handia, hain erreala. Bere aurpegiaren lehen planoa da, eta irribarretsu ageri da. Ez nekien orain arte, baina hau zen behar nuena.

Bere benetako argazki bat ikusi, oroitzapen eta fantasiak alde batera utzita. Iraganean nengoen harrapatuta, momentu hartara arte jakin ez arren. Orria pasa eta argazkiak ikusten jarraitzen dut. Hurrengoan mendi-punta batean dago, kamerara harro begiratuz. Ondorengoan aldiz, irribarrez, belardi batean etzanda. Asko daude horrelakoak, denak desberdinak. Baina denetan dago bera, azken denboraldian hainbeste faltan bota dudan pertsona. Nire haurtzaroan hain garrantzitsua izan zena, eta baita geroago ere. Orrialdeak pasatzen jarraitzen dut, argazki guztiei erreparatuz. Amaierara iristen naiz denbora baten buruan. Azken orria pasatzen dut, eta bertako edukiak izoztuta uzten nau. Bertan azken argazki batez gain, eskutitz bat dago, lehenago ikusi ez dudana. Ezin dut sinetsi hainbeste denbora eta gero aurkitu izana. Gutun-azala ireki eta ahots dardartiarekin irakurtzen hasten naiz:

> *"Kaixo maitia.*
>
> *Hau irakurtzen ari bazara, ni jada ez naiz han izango. Jada ez naiz zure ondoan eserita egongo. Jada ez dut zure aurpegi maitagarri hori aurrean ikusiko. Baina horrek ez du esan nahi zurekin ez nagoenik. Zure alboan jarraitzen dut, fisikoki ez bada ere. Zure pausu bakoitzean, arnas bakoitzean, taupada bakoitzean nauzu zeure alboan. Ni beti egongo naiz zurekin, nahiz eta nire aurpegia aurrean ez ikusi hemendik aurrera. Gogoan ditut zurekin pasatako aldi guztiak, ez ditut ahaztuko. Ikusi zintudan lehen momentutik jakin nuen ongi moldatuko ginela, baina inoiz ez nuen imajinatu halako maitasuna haziko zenik gure artean. Beti izan zara berezia niretzat, eta badakit ni ere banaizela zuretzat. Suposatzen dut ezin garela betirako batera egon, nahiz eta hala nahi izan. Banekien noizbait elkarri agur esan beharko geniola, baina ez nuen uste hain goiz gertatuko zenik. Nik joan beharra dut, horrela eskatzen dit nire gorputzak. Zuk aldiz urte asko dituzu aurretik, gaztea zara! Eta urte hauek ongi aprobetxatu behar dituzu, bion partez. Eta zure amaren partez, batez ere. Bizitzak goiz eraman zuen, eta zure amak ez zuen nahi beste asti izan nahi zituen guztiak egiteko. Baina bizi izan zituen urteak ongi bizitakoak izan ziren. Etekina atera zion segundo bakoitzari. Zuk ere hala egitea nahi dut. Azken eguna balitz bezala bizi. Maitatu, bueltan ezer espero gabe. Zuk aurrera jarraitzea nahi dut. Ezin zara iraganean harrapatuta gelditu, ez berriro. Zure ama joan zenean nahiko kostatu zitzaigun bioi aurrera egitea, baina zuk egin dezakezu. Zuk aurrera jarrai dezakezu. Ez dut nahi zu amaz edo nitaz ahazterik, ez dizut hori eskatzen. Baizik eta dauzkagun oroitzapenekin eta ikasketa guztiekin aurrera jarraitzea. Orainean bizi behar zara, iragana gogoratuz eta etorkizuna eraikiz. Baina orainean, momentuan.*

/ Ipuina

Ez dizut eskatzen malkorik ez botatzeko edo triste ez egoteko. Eskubide guztia duzu horretarako. Hala ere, ni irribarre batekin gogoratzea nahi dut. Oroitzapen alai baten gisa. Badakit zaila dela, baina inoiz ez da berandu saiatzeko. Zuk soberako gaitasuna duzu, baita ausardia ere. Beldurra ematen du, badakit. Nik ere izua diot mundu errealari, bizitzari orokorrean. Hala ere, beti dago errealitatetik ihes egiteko modu bat, berriro munduari aurre egiteko indarra aurkitu bitartean. Behar duzun denbora hartu osatzeko eta zure onera itzultzeko, baina ez ahaztu bueltatzen. Zure zain dago mundu harrigarri bat, edertasunez betea, aukeraz betea. Zu prest zaudenerako. Ez dago presarik, baina ez ahaztu beraz.

Mila orrirekin ere ez nuen nahikoa izango zutaz agurtzeko. Beno, hau ez da agur bat, gero arte bat baizik. Edo kaixo esateko beste modu bat. Ez dugu elkar ikusiko orain arte bezala, baina beste mila modu daude kontaktuan jarraitzeko. Badakizu asko maite zaitudala, eta nahi duzun aldiro niregana jo dezakezu. Modu egokia aurkitzea besterik ez duzu.

Ez ahaztu zure bizitzan oreka bilatzeaz. Ez zaude bakarrik.

Aitona"

Malkoak masailetan behera ditut eskutitza irakurtzen amaitzean. Baina badakit hauek azkenak direla. Negar hau aitonaren heriotzagatik egingo dudan azkena da. Azken hilabeteetan malko gehiegi bota ditut honengatik. Eta ez naiz lotsatzen. Negar egitea onuragarria da, eta oso komenigarria. Baina nik barruan nuen tristura hustu dut eta orain leku hori pentsamendu, oroitzapen eta ikasketekin bete dezaket. Askotan ez diogu uzten gure buruari gaizki egoten, ongi ez sentitzen. Baina denok ditugu momentu txarrak, egun txarrak, aste txarrak, hilabete txarrak… Eta ez dago gaizki. Baina hortik irteten jakin behar da, eta aurrera jarraitzen. Bakoitzari dagokionean.

Etxetik korrika batean irteten naiz, gutuna oraindik eskuan dudala. Bi aldiz pentsatu gabe badakit nora joan, eta nire hankek zuzen naramate nire helmugara. Minutu batzuen buruan bertan naiz, hilerrian, aitona eta amaren hilobien aurrean. Bata bestearen alboan daude jarrita, ekialdera begira. Hori da biek jarri zuten baldintza bakarra, hilobiratzerakoan, ekialdera begira egon nahi zuten, egunero egunsentia batera ikusi ahal izateko. Bien eguneko momentu gustukoena zen, esnatze berri bat izango balitz bezala, aukera berriz beteriko egun baten lehen agurra. Hilobien aurrean jartzen naiz lehen aldiz. Ama hil zenean ez nintzen gai izan bera bisitatzera etortzeko, eta berdina gertatu zait aitonarekin. Baina orain badakit nire egunerokotasuneko ekintza bat bihurtuko dela, nire barruan senti dezaket.

—Kaixo, ama. Kaixo, aitona. Zer moduz? —hasten naiz—. Sentitzen dut lehenago etorri ez izana, badakizue nolakoa naizen. Kosta egiten zait horrelako berriak onartzea. Baina orain badakit hobeto nagoela, edo hobetzeko bidean behintzat. Sendatzearen prozesu hau ez da egun batetik besterakoa, eta denbora bat beharko dut. Baina badakit aurrera noala, pauso txikiz bada ere.

Zerura begiratzen dut. Orain arte konturatu ez naizen arren, egunsentia minutu gutxi

/ Ipuina

OREKA

barru gertatuko da, eta zerua kolorez betetzen ari da.

—Faltan botatzen zaituztet, ez dakizue zenbat. Baina egunsenti bakoitzarekin gogoratzen naiz zuetaz. Egun on esaten didazue laino artetik.

Zerura begira etzaten naiz bien ondoan. Azken aldian sentitu ditudan sentimendu negatibo guztiak behingoz askatuz. Guztiz bakean sentitzen naiz, nire buruarekin eta baita inguruarekin ere. Bi aldetara begiratzen dut; maite nauten pertsonez inguratuta nago, zer gehiago behar dut?

Egunsenti hau azkenaldian lehena izan da, baina badakit ez dela azkena izango. Momentu honek bakez eta lasaitasunez betetzen nau. Nire bizitzan behar ditut hauek. Atzera begiratzean konturatzen naiz izan ditudan zailtasun guztiez, ezintasun guztiez, egindako huts guztiez. Baina ez naiz ezertaz damutzen. Milaka akats dira, denak nireak, eta denak prozesuaren parte. Bide guztiek bezala, nireak ere aldapa handi bat izan du. Hainbat momentutan amaigabea zirudiena. Baina orain gaina ikus dezaket urrunean, eta irrikaz nago bertara iristeko. Ez lehenago bidaiaz gozatu gabe.

Aitonak esan bezala, orain arte bizitzan ez neukan oreka nabil lortzen. Hori baita guztirako sekretua: oreka. Dena ez da zuria edo beltza bizitza honetan, badaude tartean milaka kolore. Dena da perfektua, bere inperfekzioak onartu eta besarkatzen dituen momentuan. Orekarekin jolasean gabiltza bizitzan, eta erortzen bagara, berriz ere jaikitzeko da.

IPUINA
Laugarren taldea
2. saria

Egilea: ***Jone Lizaur***

IZENBURUA

Etxetik urrun



/ Ipuina

ETXETIK URRUN

Bazen behin hartz bat Thor izenekoa, oso handia eta indartsua zena. Bergaratik ez oso urrun bizi zen, Pirinioetan, mendien arteko kobazulo batean. Thor beti bizi izan zen kobazulo berean. Bere kobazuloaren alboan egiten zuen bere bizitza; ez zen bere kobazulotik bi kilometro baino gehiago urruntzen.

Egunero gauza bera egiten zuen: zortzietan ohetik altxatu eta bere etxe alboko errekara joaten zen arrantzatzera. Gosaldu ondoren, hamarrak aldera, kirola egiten zuen. Kirola egiteko bere etxe alboko pinuetara igotzen zen hamar edo hogei aldiz. Kirola egin ondoren, bazkaria preparatu, jan eta siesta egiten zuen. Eta azkenik, eguzkia sartzen zen bitartean, afaldu eta oheratu egiten zen.

Egun batean, afaltzen zegoela, urrunean kotxe batzuk ikusi zituen. Pixka bat kezkatu zen, baina ez zion garrantzia handirik eman. Hurrengo egunean, gosaltzera zihoala, bere lagun ezagun bat ikusi zuen maleta batekin eskuetan.

—Zer ari zara etxeko gauzekin eskuetan? —galdetu zion Thorrek—. Nekatu egingo zara.

—Ez al dakizu? Gizakiek euren etxe batzuk eraiki behar dituzte gune honetan —erantzun zion lagunak.

—Txantxetan ariko zara, ezta? —esan zuen harrituta Thorrek.

—Ez nabil txantxetan, benetako egia da —baieztatu zuen lagunak —. Eta, ez bazara egun batzuetan hemendik joaten, harrapatu egingo zaituzte gizakiek.

Baina Thorrek ez zuen, inola ere, bere etxea laga nahi. Bizitza osoan bizi izan zen kobazulo berean eta ez zekien zer zegoen errekatik aurrera. Beldurra ematen zion eta ez zuen nahi bere konfort tokitik atera.

Gau horretan ezin izan zuen lo egin. Gau osoa eman zuen pentsatzen zenbat gauza atera zitezkeen gaizki bere etxetik ateratzen bazen. Hala ere, gauza bakarra zuen argi: egun gutxitan etxetik ateratzen ez bazen, gizakiek harrapatu egingo zuten.

Hurrengo egunean, bere aspaldiko lagunak bisitatzea erabaki zuen: Maria eta Jon. Thorrek galdetu nahi zien ea zer asmo zuten egoera berri honen aurrean.

Thorrek urte asko zeramatzan bere lagunen etxerako bidea egin gabe, etxea ez zelako bere bi kilometroko ingurunean kokatzen. Thor kostata iritsi zen bere lagunen etxera eta, iristean, lagunek poztasun handiarekin egin zioten ongietorria.

Iritsi eta minutu gutxira hasi ziren hitz egiten lagunak gertaeraren inguruan. Arazoaren inguruan, lagunek esaten zuten lau egun barru joango zirela, arriskutsua zelako eurak bizi ziren tokian bizitzen geratzea.

Thorrek kostata erabaki zuen eurekin joatea. Ezinezkoa zuen han geratzea, geratzen bazen gizakiek harrapatu eta hil egingo zutelako.

Hurrengo egunean, Thor dena planifikatzen hasi zen (Thorrek beti dena planifikatzen zuen).

Dena planifikatu ondoren, konturatu zen ez zuela maletarik bere etxeko gauzak sartzeko

/ Ipuina

ETXETIK URRUN

eta maleta handi bat beharko zuela. Basotik ibiltzen zihoala, oihal zati handi bat aurkitu zuen errekan botata eta arrama batean harrapatuta. Thorrek oihala hartu eta berarekin maleta bat egitea erabaki zuen. Thor artista bat zen, eta minutu gutxitan ia eginda zuen maleta. Ahalik eta maleta zabalena egin zuen, ahalik eta gauza gehien sartzeko.

Kobazulotik joateko bi egun falta zirenean, Thorrek iritziz aldatu zuen. Ez zuen nahi bere kobazuloa utzi, beldurra ematen zion gertatu zitekeenak edo bere bi kilometroetatik kanpo egon zitekeenak; pentsatze hutsak hotzikarak ematen zizkion.

Gauean, paisaia begiratzen zegoela, kamioi gehiago ikusi zituen bide batetik igotzen. Biharamunean, Thorren lagunak Thorren bila joan ziren eta, iritsi zirenean, ikusi zuten ez zuela ezer prestatuta, eta zertan zegoen galdetu zioten Thorri.

Thorrek beldurra zuela erantzun zien, ondo zegoela bere kobazuloan eta beharrezkoa bazen gizakiekin borrokatuko zuela. Lagunek elkarri begiratu zioten, Thorren alboan eseri eta goxo-goxo esan zioten:

—Ezin zara hemen geratu, ezingo diezu gizakien armei aurre egin. Gurekin etortzen bazara, seguruenik, beste kobazulo polit bat aurkituko dizugu erreka baten alboan —esan zion Mariak.

—Baina ez da berdina izango, ez dut pinu berdina izango, ezta bide berdina ere, ezta… —esan zuen Thorrek begitik malko bat erortzen ari zitzaion bitartean.

—Zuk alde positiboa ikusi, beti. Orain, txango bat egingo duzu lagunekin eta gero kobazulo berri bat edukiko duzu zuretzat, berrizteko eta gauzak planifikatzeko. Hori zuri ikaragarri gustatzen zaizu, ez? —esan zion Jonek begiko malkoa kenduz.

Thorrek, indarrak bildu, eta maleta berreraiki zuen. Beldurra zuen, baina bazekin joan beharra zuela. Kobazulotik kanpo, lehenengo pausuak ematean, dardaraka zegoen. Bere lagunek, egoera hori ikustean, besotik heldu zioten eta, poliki-poliki, kobazuloa atzean laga zuten.

Thor harritu egin zen ikustean zenbat gauza zeuden errekatik aurrera eta zenbat gauza galdu zituen beldurrarengatik.

Eguzkia sartzen hasi zenean, lo egiteko toki bat bilatzen hasi ziren eta hainbat kilometro ibili ondoren, lo egiteko kobazulotxo bat aurkitu zuten. Maletak toki batean laga zituztenean, konturatu ziren ez zirela denak sartzen eta, horren ondorioz, beste bi ordu egin zituzten kobazulo berri bat aurkitu nahian.

Behin kobazuloa aurkituta, lo egiten hasi ziren, baina Thorrek ezin izan zuen lo egin. Gau osoa eman zuen bere lehengo kobazuloko paisaiak eta kobazulo honetako paisaiak konparatzen. Eguzkia ateratzean, Thorrek gosari eder bat prestatu zuen, aurkitu zuen erlauntzeko eztiarekin, egun osorako indarrak izateko.

Lagunek ikaragarri eskertu zioten gosaria prestatu izana, eta prestatutako dena jan zuten. Behin gosaria bukatuta, joan egin ziren, eta kilometro batzuk aurrerago, mendi maldatsu, landaretsu eta, itxuraz, erreka bat zuena ikusi zuten.

—Toki perfektua da! Horra joan behar gara! —esan zuen poz-pozik Thorrek.

—Bai, toki polita da, baina, ikusi, giza herri batetik pasatu beharko ginateke eta nahiko

/ Ipuina

urrun dago, gainera —esan zuen Mariak.

—Nik hartuko nuke arrisku hori gure kobazulo berriarengatik —esan zuen Jonek.

—Nik ere bai —esan zuen Thorrek ausardiaz.

—Ba, erabakita dago. Goazen bide horretatik —erantzun zuen Mariak.

Gaualdean, hartzak oso nekatuta zeudenez eta bizkarreko mina zutenez, herritik hainbat kilometrora lo egitea erabaki zuten, hurrengo egunean indartsu egon behar zirela baitzekiten. Gau horretan, Thor lo seko geratu zen eta, horren ondorioz, gosari gabe geratu ziren, ez baitzuen inork prestatu.

Goseak zeuden, baina herria zeharkatzeko ordua heldu zenez, korrika batean joatea erabaki zuten. Hala ere, ez zen ideia ona izan. Pertsona batek ikusi zituen eta, inolako zalantzarik gabe, animalien kontrol sailera deitu zuen.

Hartzak beldurtu egin ziren, ez zuten irteera aurkitzen. Horrenbeste denbora ibili zirenez noraezean korrika, animalien kontrolekoek iristeko denbora izan zuten.

Jon harrapatu zuten eta, orduantxe, irteera aurkitu zuen Mariak. Baina ez zekiten zer egin, eurak salbatu edo Jon askatu. Azkenean, Jon salbatzea erabaki zuten, ezin zutelako Jon bertan behera laga, eta bera erreskatatzera joan ziren.

Dakizuenez, Thor planak egiten oso ona zen, eta, beraz, plan bat egin zuen: Maria oso azkarra zenez, gidariaren kristal alboan jarriko zen eta gidaria, pentsatu gabe, gelditu egingo zen Maria harrapatzeko. Furgoneta gelditzerakoan, Thorrek atea zabaldu, Jon bertatik atera eta basorantz joango ziren biak. Bitartean, Mariak denbora galaraziko zion gidariari eta hamar segundora basorantz joango zen.

Plana fenomeno joan zen, pentsatu zuten bezala atera zen. Herritik nahiko urrun zeudenean, gelditu eta hasperenka hazi ziren.

—Zelako abentura! —esan zuen Thorrek saltoka.

—Ba, niri ez zait oso abentura dibertigarria iruditu —erantzun zuen Jonek aurpegia muturtuta.

—Niri arriskutsua zein nekagarria iruditu zait, oso nekagarria —esan zuen Mariak aharrausika.

—Bai, ni ere nekatuta nago. Goazen lo egitera, mesedez —erregutu zuen Jonek.

—Ba, hementxe bertan egin dezakegu lo —esan zuen Thorrek.

Gau hartan, oso nekatuta zeuden eta, ondorioz, inoiz baino hobeto egin zuten lo. Esnatzean, sekulako gosaria egin zuten basoan aurkitu zituzten landareekin.

Indarrak hartu zituztenean, bideari jarraitu zioten. Lautada batera iritsi ziren, eta handik ikusi zuten eurak helburutzat zuten mendia nahiko gertu zeukatela. Hainbat ordu ibiltzen eman ondoren, mendiaren azpialdean zeuden.

—Aizue, orain gogorrena falta zaigu. Orain artekoa gogorra iruditu bazaizue, hau gogorrena da —esan zuen Jonek hasperenka.

—Ezin dut sinetsi! Azkenean hemen gaude, gure etorkizuneko kobazuloak hemen daude

/ Ipuina

ETXETIK URRUN

—erantzun zuen Thorrek pozik.

—Egia da! —ohartu zen Maria.

Hasieran, oso indartsu eta pozik hasi ziren igotzen, baina, geroago, hasperenka hasi ziren, eta hankak lurrera itsatsita zituztela zirudien. Bat-batean, ur-soinua entzun zuten.

—Erreka bat da! Erreka bat da! —esan zuen emozionatuta Jonek.

—Esan genuen erreka! —erantzun zuen Mariak.

—Goazen begiratzera ea kobazulorik dagoen —proposatu zuen Thorrek.

Sekulako kobazuloak zeuden; erraldoiak ziren eta paretetan mineralak zituzten. Mineralak kolore askotakoak ziren: urdinak, moreak, berdeak, turkesak…

Mariak eta Jonek ezin zuten sinetsi, munduko kobazulo politenak ziren! Baina Thor ez zegoen ados, ez zen lehengo bere etxea bezalakoa.

—Zer gertatzen zaizu? —galdetu zion Jonek.

—Ba… Ez da nire lehengo kobazuloaren berdina —erantzun zion Thorrek hasperenka.

—Noski ez dela berdina! Hobea da! Ikusi duzu zelako politak diren kobazuloak? —esan zuen poz-pozik Mariak.

—Bai, baina… —tematu zen Thor burumakur.

—Aaaa! Orain ulertzen dut! Zure lehengo kobazuloa faltan botatzen duzu. Noski ez dela berdina izango, baina kobazulo honetan bestean ez zeuden gauza asko ere badaude —esan zuen Jonek.

—Adibidez? —galdetu zuen Thorrek.

—Ba, adibidez, kirola egiteko pinu altuagoak dituzu, erreka handiago bat, animalia gehiago ehizatzeko, mineralen bilduma bat egiteko mineralak… —esan zuen Jonek, aipatzen zuen gauza bakoitza seinalatzen zuen bitartean.

—Beno… Horrela begiratuta, ez dago hain gaizki —pentsatu zuen Thorrek.

—Badakit ez dela berdina izango, baina saiatu ohitzen —aholkatu zion Jonek.

—Bale, saiatuko naiz ohitzen —esan zuen Thorrek.

Thor gutxika ohitzen joan zen eta bere kobazulo berria maitatzen hasi zen. Batzuetan, noski, lehengo kobazuloa faltan botatzen zuen, baina kobazulo berria ere maite zuen.

Thorrek gauza oso garrantzitsu bat ikasi zuen: batzuetan bere konfort egoeratik atera behar dela, bestela gauza asko deskubritu gabe utziko dituelako.

IPUINA
Laugarren taldea
3. saria

Egilea: ***Ane Lobato***

IZENBURUA

Mafia Capone



/ Ipuina

MAFIA CAPONE

Irina, 2005-01-10, 18:14

Ez da posible. Ez, ez, ez. EZ.

Makurtu eta pultsua hartzen saiatzen naiz, jakin arren ez duela. Dante hilda dago. Nire senarra hilda dago. Nire bizitzako maitasuna, behin bakarrik aurkitzen den horietakoa, hautsa bezala desagertzen da.

Jaiki eta bere gorputza ikusten dut lurrean. Begi urdin horiek, begiratzen nituen bakoitzean etxean egongo banintz bezala sentitzen nintzen; orain, ordea, ez da sentsazio horretaz ezer geratzen. Bere gorputza begiratzen dut arreta handiagoz. Jo egin dute, eta baita pistola batez bihotza zulatu ere. Nire bihotza. «Egia esatea nahi duzu, Irina? Maite zaitut. Maite zaitut, zure ilean elurra erori zenetik. Lehenengo musua eman zenidan egunetik. Orain ez zaitut desiratzen bakarrik, desira hori ez da ezer oraintxe bertan sentitzen dudanarekin, eta zuri ere gauza bera gertatzen zaizu. Beldur zara. Baina zertaz? Berriro bihotza apurtzeaz? Zure bihotza ez dut apurtuko. Zure bihotza orain nirea da, zureak taupa egiten badu, nireak ere bai, baina gelditzen bada, nirea ere gelditu egingo da. Nire bihotza zara. Ezin diot zugan pentsatzeari utzi, nire munduak zure inguruan biratzen duelako. Ez al zara konturatzen? Mundua erretzen utziko nuke zure beste begirada bategatik. Zure laztan bategatik. Zure irribarre bategatik. Eta gero, harro erakutsiko nuen pospoloa, denek jakin zezaten egin nuena zuregatik izan zela. Ezin naiz zu gabe bizi, nire eguzkia zara, nire momentu ilunetako argia. Hain gustuko ditut zure begiak. Zure bihurrikeriak, edo haserretzen zarenean zure gorritzeko modua. Gure maitasuna ez da zuk irakurtzen duzun ipuinetakoa, eta zuk ere badakizu hori. Ez gara Xaden eta Violet, edo Shannon eta Johnny, eta, are gutxiago, Klaus eta Caroline. Gu Dante eta Irina gara. Italiako mafia arriskutsuenekoak. Gurea zailagoa izango da, baina horrek ez du esan nahi merezi ez duenik. Guk egingo dugu honek guztiak merezi izatea. Batera. Badakit nirekin egoten bazara arriskuan zaudela, baina mafia mundu honek hori du. Ez duzu erabakitzen zein familiatan jaiotzen zaren. Eta nirea hau bada, zurea ere izatea nahi dut. Egun batean ez naiz berriro esnatuko, eta egun hori heltzen denean, damutu egingo naiz bizi ez ditudan gauza guztiez. Zurekin egon nahi dut nire azkenengo hasperenera arte. Azkenengo momentura arte.» Bere maitasun aitormena dut buruan, bere hitzek esango luketen moduan. Ezin dut ezer gehiagotan pentsatu.

Danteren gorputza erre, eta fabrikatik irteten naiz nire bizkartzainekin. Zer egingo dut orain? Nik bakarrik gidatu beharko al dut gure mafia?

Salvatoreri deitu aurretik bera nire bulegoan dago. Bazekien zer galdetuko nion, eta aurreratu egin da. Badaki zer gertatu den. Baina ez du ezer esaten. Betiko aurpegi serioa du, baina bere begietan berak esaten ez dituen hitzak topatzen ditut. Tristura. Mina. Beldurra. Haserrea. Enpatia. Errua. Orduan badakit zerbait txarra gertatu dela.

—Adara è stata rapita (Adara bahitu dute).

Ez, berriro ez. Zein izan da? Nork egin dit hau? Adara bahitu dute. Berriro. Urtebetean bigarren aldiz. 18 urte ditu; ez daki defendatzen, ezta pistola bat heltzen ere. Aurrekoan

/ Ipuina

MAFIA CAPONE

bortxatu egin zuten eta ez badut zerbait egiten berriro gertatuko da. Ezin dut utzi berriro depresioan erortzen. Ezin dut. Gaur nire bizitzako egunik txarrena da. Lehenengo nire senarra hil eta orain nire ahizpa bahitu. Jakiten dudanean nork egin didan hau dena, desiratuko zuen nire bidean ez jartzea.

—Nor izan da?

—La famiglia Wolf, i russi (Wolf familia, errusiarrak).

Salvatore joan bezain laster, nire begietan gordetzen ari nintzen malkoak nire masailetatik behera erori ziren. «Negar egiten duzun bakoitzean, ez duzu negar egiten gertatu berri denagatik, negar egiten duzu bere garaian negar egin ez zenuen guztiagatik.» Danteren hitzak ditut berriro buruan. Orain badakit arrazoia zuela. Baina ezin dut denbora galdu malkoetan. Orain Italiako mafia boteretsuaren buru naiz. Ni bakarrik. Dante gabe. Adara gabe. Baina hori aldatu egin behar dut bakarrik gelditu aurretik.

Dante, 2005-01-10, 01:38

Mugikorraren dardarak esnatzen nau. Baina ez dut jaiki nahi. Mugikorra itzali egiten da, eta hori da behar dudan bakarra berriro lo egiteko. Dardara gehiago. Baina zer ostia? Nor dabil niri deika? Deika dabilen pertsonak ordaindu egingo du ni esnatu izana. Irinaren gorputza gainetik kentzen dut. Beti nire gainean. Beti gauza berbera esaten diot, «ez jarri nire gainean gauean». Baina egunero egiten dit gauza bera. Ez diot inoiz aitortuko, baina asko gustatzen zait nire gainean ipintzea gauetan. Beti sentitu ez ditudan gauzak sentitzean. Maitasuna. Nire familiako inork eman ez didana.

—Zer nahi duzu? —nire ahotsa pentsatutakoa baino astunagoa entzuten da.

—Adara è stata rapita (Adara bahitu dute) —erantzun dit Salvatorek, bere italiar azentu markatuarekin.

Mundua bitan zatitu zait. Adara niretzat nire arreba txikia balitz bezala da. Nola gertatu zaio berriz? Barnetegi pribatu batera eraman nuen hiriaren kanpoaldean. Berriro ez gertatzeko. Bere begi grisetara begiratu eta promes egin nion ez zela berriro gertatuko. Eta, berriro huts egin diot.

—La famiglia Wolf, i boss della mafia russa (Wolf familia, Errusiako mafiaren buruzagiak).

Ez dakit zergatik galdetu dudan. Banekien haiek izan direla. Betidanik izan gara etsaiak, baina gauzak okerrago jarri dira nire aitak, Leonardok, nire mafiako aurreko buruzagiak, beraien aita hil zuenetik.

—Non dago Adara?

—È nella fabbrica alla periferia della città, ti ho mandato l'indirizzo sul cellulare (Hiriaren kanpoaldean dagoen fabrikan dago, telefono mugikorrean bidali dizut helbidea).

Salvatorek badaki zer egin behar duen. Ez diot zertan esan. Baina gaur ez dut nahi hori egiterik.

/ Ipuina

Etxetik irten eta autora igotzen naiz. Salvatore kotxe barruan dago, bere aurpegi serioarekin, ezerk ardura ez balio bezala. Baina maskara apurtezin horren atzean, nirekin hazi den mutila dago. Beti nitaz arduratzen dena. Orain nire bizkartzaina eta lagunik onena dena. Esan nahi ez badu ere, bere begietan ikusten dut. Beldur da.

—Ni bakarrik noa. Hemen gelditzen zara —ezin diot laga nirekin etortzen.

—No.

Ezin da nirekin etorri. Arriskutsuegia da. Ez dakit ni berriro etxera bueltatuko naizen, baina ez diot beldur heriotzari. Ez, behintzat, maite dudan pertsona bat babesten hil behar banaiz.

—Ez zatoz, irten nire autotik —nire ahotsa ahal dudan eta serioena da; jakin dezan ez nagoela txantxetarako —. Hemen gelditu behar zara, Irinarekin.

—No.

Tontoa da ala bere emazteak zaplazteko bat eman dio?

—Ni joaten banaiz eta ez banaiz bueltatzen Irina bakarrik geldituko da. Gu gabe. Hiltzen banaiz zure laguntza beharko du. Ez du inor gehiago, eta mafiaren burua izateko laguntza beharko du. Nire emaztea da. Ezin dut bakarrik utzi.

Begietara begiratzerakoan badakit konbentzitu dudala.

—Se ti succede qualcosa, giuro che colui che ti ucciderà sarò io. Ti amo, scarafaggio (Zerbait gertatzen bazaizu, zin egiten dizut ni izango naizela hilko zaituena. Maite zaitut, labezomorro).

Hitz horien atzean ezkutatzen den eskaera bere begietan ikusten dut. Berdeak. Betiko berde horiek. Distiratsuak. Ilunak. Alaiak. Tristeak. Baina, batez ere, ikusten ditudan bakoitzean badakidanak bereak direla, nire lagunik onenarenak.

— Anch'io ti amo, panino al miele (Nik ere maite zaitut, ezti opiltxo) —irribarre batez amaitzen ditut hitz horiek. Gure izenordeak entzutea. Agian azkenengoak izango baitira.

Berak ere badaki zertan pentsatzen nagoen. Beti jakin du. Ni beretzat liburu ireki bat naiz, begirada baten ulertzen du dena. Nik, aldiz, oraintxe ikusten dut. Liburu ireki bat bezala. Dena ikusten dut. Beldurra. Ez joateko erregua. Laguntasuna. Enpatia. Maitasuna. Beti ikusi ez ditudan sentimenduak ikusten ditut. Baina ezin diot nirekin etortzeko eskatu. Bera eskaini izan arren. Nire laguna da, eta ezin diot hori egin. Ez. Ni bueltatzeko aukera gutxi daude, eta bera ez da aukera gutxi horien barruan sartuko.

Azkenengo begirada bat eskaintzen diot. Dena lehenengo aldiz moduan sentitzeko. Eta gaur, seguruenik azkenengoz.

Fabrikara heltzean ziurtatzen dut nire glock-ak bizkar atzean ditudala. Atzeko aldetik gustuko bi metrailetak hartzen ditut. Bat sorbaldan zintzilikatzen dut. Bestea, aldiz, ez, eskuan eramango dut. Egiaztatzen dut eskuan daramadan metraileta kargatuta dagoela, eta ondoren, kotxetik irteten naiz. Metraileta eskuan, fabrikara sartzen naiz. Dena ilun dago, inor egongo ez balitz bezala. Adara egongo ez balitz bezala.

/ Ipuina

MAFIA CAPONE

— Dante, Dante, lagundu —Adararen ahotsa da, apurtuta.

Ez dut bi aldiz pentsatzen eta aurrera jarraitzen dut. Baina dagoen bakarra mugikor bat da, lurrean. Lurretik hartu dudanean badakit hemen ez dagoela. Tranpa bat da. Eta ni zuloan jausi naiz. Bete-betean.

Kotxera korrika bueltatzen naiz, baina beranduegi da. Hemen daude. Alexei Wolf nire kotxearen ondoan dago. Pistola batekin niri apuntatzen, bere irribarre harroputz horrekin ezpainetan. Korrika alde egitea pentsatzen dut, baina ezer egin aurretik Alexeik armaren katua zapaltzen du.

Nire bihotzean ematen dit, bete betean. Gaur hilko naiz. Baina ez naiz damutzen etorri izanagatik. Ezta nire bizitzan hartu ditudan erabakiengatik ere. Gauza bat bakarrik dut buruan. Pertsona bat, hobe esanda. Irina.

Wolf hurreratzen da, eta dena oso azkar gertatzen da. Azkarregi. Momentu batetik bestera lurrean nago, eta Alexeiren eskuak alde guztietatik ditut. Jotzen. Momentu batetik bestera nire bihotzeko balarengatik hil behar ez banintz bezala.

Dena beltz dago. Ez dut ezer ikusten. Beltza soilik. Badakit hau nire azkenengo momentua dela. Azkena. Eta bakarrik nire bizitza berezia egin dutenetan pentsatzen dut. Adara. Irina. Salvatore.

Irina, 2005-01-11, 20: 51

—Nola egin didazu hau? Nire ama zara —nire hitzak amorruz beteta zeuden.

—Zertaz ari zara hitz egiten? Ezin zara nire etxera etorri 5 urte hitz egin gabe pasa eta gero, eta niri oihuka hasi! Nor zarela uste duzu?

—Badakizu zergatik nagoen hemen? Zer uste zenuen, ez nintzela enteratuko? Nire senarra hil duzu. Zuk. Eta Adara bahitu. Nork bahitzen du bere alaba? Puta perra bat zara.

Momentu batetik bestera nire amak eskua altxatu zuen. Zaplazteko bat eman behar zidan. Baina ni bera baino azkarragoa bihurtu naiz urte hauetan, Danteri esker.

—Esku bat gainean jartzen badidazu, esku gabe geratuko zara. Nor zarela uste duzu? —esan nion nire pistolaz bere eskuak apuntatuz.

—Zure ama —erantzun zidan bere betiko maskara jarriz.

—Adararen eta bion ama izateari utzi zenion ez zenidanean laga Danterekin ezkontzen. Eta, ondorioz, Adara utzi zenuenean; 9 urte zituen! Eta bakarrik utzi zenuen! Zer pentsatzen zenuen, gure aita hilobitik irtengo zela bere kargu egiteko?

—Zure onerako egin nuen! Ezin zinen gizon horrekin ezkondu, arriskutsua zen. Mafia mundua arriskutsua da! —esan zidan, hori bere ekintzen arrazoia izango balitz bezala. Gezurra.

/ Ipuina

—Eta hemen nago. Bizirik. Eta ez dakit dakizun, baina Dante hil zenuenean ez zinen ohartu orain ni naizela Italiako mafia boteretsuenaren buru. Ni —hitzak nazkaz esan nizkion. Hori zelako berak ematen zidan bakarra. Nazka.

—Zuregatik egin nuen.

—Niregatik? Zure burua entzuten ari al zara? Dante hil duzu eta Adara bahitu, eta esaten didazu niregatik egin duzula!? —hau harrigarria da—. Non dago Adara? —ez zuenez erantzuten, pistola hartu, eta burura apuntatu nion, jakiteko ez nagoela bere txantxetarako.

Nire ama negarrez hasten da, baina ez dut ulertzen zergatik. Hau ez da negar egiteko momentua, lehenago pentsatu behar zuen zer egin.

—Banekien zu zinela nire ahizpa bahitu eta nire senarra hil duena. Baina ez nuen pentsatu nahi nire amak horrelakorik egin ahal zidanik. Baina, gero, Salvatorek esan zidanean zu Wolf familiarekin bateratu zinela, falta zitzaidan froga zen zure etxera etortzeko eta zu hiltzeko. Nire senarrarekin egin zenuen moduan. Non dago Adara? Ez dizut berriro galdetuko. Non dago? Eta ez badidazu erantzuten, desiratuko zenuke nire ama ez izatea.

—Adara… hiriko ekialdeko txabola batean dago. Ez diot ezer egin —esaten du malkoen artean.

—Salvatore, bidali Bianco eta Abatino etxola horretara —buruaz baietz esanez irteten da logelatik.

Minutu batzuk igaro ondoren, Salvatore bueltatzen da.

—Lei è lì, la stanno portando a casa adesso. E ho chiamato il dottor Fiore perché venga a vederla (Han dago, orain eramango dute etxera. Eta Fiore medikuari deitu diot ikustera etortzeko) —esaten dit irribarre batez.

Hitz hauek dira behar ditudan bakarrak jakiteko ez dudala nire ama ezertarako behar. Hil egingo dut. Berak nire senarra hil duen bezala.

Pistola bere bihotzean jartzen dut, irribarre batez. Berak, aldiz, begiak zabalik ditu. Ez zuen pentsatzen hori egingo nuenik. Baina orain ez naiz berak abandonatu zuen neska. Aldatu egin naiz, eta ez dakit onerako edo txarrerako izan den. Pistolaren katua sakatu, eta nire ama hiltzen dut barre batez. Dena odolez zikinduta dago. Baina ez dit inporta. Berari ere inporta izan ez zitzaion moduan nire senarra hiltzea, niri ere ez zait inporta nire ama hiltzea. Ez dut bere beharrik. Behar dudan bakarra nire familia da. Adara eta Salvatore.

Aurkibidea <<

POESIA

Laugarren taldea

1. saria

Egilea: ***Elixabete Gabilondo***

IZENBURUA

Poema sorta



POEMA SORTA

NATURAN

Alde batera begiratu,
zuhaitzak, belarra.
Beste aldera begiratu,
zuhaitzak, belarra.
Aurrera begiratu,
zuhaitzak, belarra.
Atzera begiratu,
zuhaitzak, belarra.
Toki guztietan,
zuhaitzak, belarra.
Eta ni,
gizaki bakarra.

ERREPIKAPENA

Zergatik errepikapena?
Nik dudalako pena
Zergatik errepikapena?
Nik dudalako pena
Zergatik errepikapena?
Nik dudalako pena
Zergatik errepikapena?
Nik dudalako pena

BIHOTZA

Nire bihotza,
tap, tap, tap.
Korrika noanean,
tap-tap, tap-tap.
Azterketa baten aurretik,
tap-tap-tap-tap.
Lasai nagoenean,
tap, tap, tap.
Hiltzean berriz,

/ Poesia

POEMA SORTA

MUNDUA

Futbola, margotu, idatzi
Nire ametsetako mundua.
Eskupilota, eskalada, motorrak
Zure ametsetako mundua.
Txoriak, goxokiak, kultura
Bere ametsetako mundua.
Gerrak, pobrezia, kutsadura
Guztion benetako mundua.

BELDURRA

Zer da beldurra?
Sentimendu ona
ala txarra?
Esan didatenez
ez da gai sentitzeko, harra.
Gezurra!
Denon beharrezko sentimendua da
Beldurra.

Beldurra edo izua.
Mina aurreikusten duzuneko
sentimendua.
Handituz gero
ikara bihurtua.
Kontrola galtzeko
dago arriskua.
Baina beldurra, denon beharrezko
sentimendua.

IPUINA

Bosgarren taldea

1. saria

Egilea: ***Asier Iparragirre***

IZENBURUA

Galda eta Mes



/ Ipuina

GALDA ETA MES

Bi dira. Espazio-ontzi baten datoz. Bi dira, eta espazio-ontzi baten datoz. Lur planetara datoz. Bi dira, eta espazio-ontzi baten datoz, Lur planetara. Egiteko ezin isilpekoagoa dute erantzukizuntzat. Bi dira, espazio-ontzi baten datoz, Lur izeneko izarbelera etorri ere, eta zeregin ezinago ezkutua dute ardura nagusitzat. Delako planetara bidean, hizkuntzatzat izango dutena ikasten aritzen da lantzean behin haietako bat, zeinak begirunez nahiz adeitasunez jokatzea izan ohi duen atsegin, baita zeinahi jarduera ahalik eta txukunena egitea ere. Hainbat ondasun izendatzeko hitzak ikasi eta oroitu nahian dihardu, bere botere bereziak baliatuz, zeinak guretzat ia-ia irudikaezinak baitira; bibrazio-irudiak irudikatzen ditu, haietako bakoitza hatzarekin destatzen eta haien azpiko eleak banan-banan zein ozen esaten:

—Zu, maia; zu, Alkiza; zu, Leioa...

Oso gogotsu ari da "euskara" izeneko hizkuntza ikasten, "Euskal Herria" izeneko lurraldea izango baitute ostatu denboraldi batez... Azkar dihardu garatzen hizkuntz horretan komunikatzeko ahalmena.

—Gaurko loaldiak ez nau batere indarberritu, eta ondoezik nago, Galda. Esango nuke hoztu egin naizela eta eri nagoela. Oso Gorliz esnatu naiz, ez dut behar bezala egin lo eta, gainera, sudurra Muskiz beterik daukat. Zuk ez al duzu hotzik sentitu?

—Otsa? Gabian? Ez... —erantzun dio Galdak, euskaraz, zailtasunak zailtasun ("txistukari" delako ezaugarriak buruhauste zenbait eragiten dizkio oraindik).

Mes ez da ezertaz ohartu, eta hizketan jarraitu du…

—Bada, niri hezur-muinetaraino sartu zait, eta oraindik ere haietan dirau, itsatsirik.

—Bai, ala? Otxandio?

—Bai... Oso Urduliz sentitzen naiz, Galda. Ez dakit zer agitzen zaidan!

—Lasai, Mes. Ea, etor zaitez... —kopeta ukitu dio—. Hotzak? Bai zera! Bero-bero zaude eta! Sukarrieta duzu! -189 graduko tenperatura duzula agertu zait eskumuturreko termometroan.

—Oso Aulesti sentitzen naiz, Galda... Lehen, ez nintzen hainbestetan gaixotzen —Paparretik heldu dio Galdari—. Gaste izan nahi nuke Berriz, Galda! Aaaaaiiiiii...

—Tira, Mes, ondoez arina dirudi... —esan dio Galdak, Mesek eritasunak nozitzeko duen gaitasun aski mugatu zein murritzari amore emanda—. Egun gutxi falta zaizkigu gure jomugara iristeko; ordurako sendatuta egongo zara... Egun gutxiren buruan Lodosatuko zara! Orain, joan zaitez atseden hartzera; utz ezazu dena neure kontu.

Galdak adierazi bezala, egun gutxi barru osaturik da Mes: sendaturik bakarrik ez, eraberriturik ere badago. Gaixoaldiek mezuren eta ikaskuntzaren baten berri ematen omen dute (estralurtarren esperientziaren arabera), eta bere burua eraldatzeko baliatu du Mesek. Poz-pozik dago, baita planez, asmoz eta xedez gainezka ere; haietako batek bereziki gogotsu eta buru-belarri dauka: baratzeak zer diren deskubritu berri du, eta hain dago motibatuta, ezen Ortuella txiki bat landu baitu espazio-ontziaren Ispaster baten, denbora aprobetxatu

/ Ipuina

GALDA ETA MES

nahian, albait gehien ikasteko, nahiz eta horrek gatazka eragin dion eskifaia osatzen duen kidearekin. Azken finean, bidaia luzea egin beharrean dira, eta, haien arteko harremana oso ona izan arren, lehenago edo geroago gertatu behar... Urak harria nola, hala ekin diote haien eroapena higatzeari asperdurak eta ezinegonak, eta ematen du ondoezak azaleratzeari ekin diola, bi estralurtarren arteko harremanean...

—Galda! Oña tipula gainean jarri duzu, arbi halakoa! Ibil zaitez adiago eta kontu handiagoz, arren! —egin dio errieta Mesek—. Egiten dihardudana bion onerako da, jomuga dugun izarbeleko kontu albait gehien ezagutu eta han ahalik eta modu eraginkorrenean egokitu gaitezen! Horrek sinesgarritasun handia emango liguke, eta izugarri sinplifikatuko eta sinpletuko lizkiguke zereginak eta eginahalak!

—Arbi, zu, txiste txarra dirudien birigarro zirin!

—Ez dakizu-eta zer den, Azagraburu txepel horrek!

—Badakit zer den! Ez al zara jabetu euskaraz dihardugula?! —Hori esandakoan, arbi bat irudikatu du airean, hori ere badakiela egiaztatzearekin batera berak baino esperientzia nahiz eskarmentu handiagoak dituela oroit dezan Mesek; horregatik izendatu zuten espedizioburu bera...

Hasierako durduzaduraren intentsitatea murriztu orduko ulertu du mezua Mesek, eta isilik gelditu da: batetik, pentsakor eta harrituta, horretaz jabetu ez delako; bestetik, burumakur eta nahigabetuta, jokatu duen moduan jokatzearren.

—Ez ezazu espazio-ontziaren erdi-erdian ipin baratzea, bai baitakizu joan-etorri asko egiten ditugula harat-honat eta beti igaro behar izaten dugula erdigune honetatik. Zergatik ez duzu hango Zokoan paratzen? Han ez diozu inori egingo enbarazurik, ezta zeure buruari ere!

—Ados —erantzun zion Mesek—. Bihar Gaubean egingo dut.

—Bihar gauean, ez: gaur gauean! Bestalde, zertan lan egingo dugun erabaki behar genuke; oraindik ez dugu hautatu zer ogibide izango diren geure diru iturri.

—Ados. Ni Orkina izango naiz; zu, berriz, Lukina. Zer deritzozu?

—Ezingo dizut azaldu zer begitantzen zaidan, zer ofizio diren argitu ezean...

—Okinak ogiak egiten ditu; Luginak, aldiz, lurra jorratzeaz zein zaintzeaz gain, landare haziak ereiten ditu, baita ernetako landareak jagoten ere, barazkiak ekoizteko.

Mesek hologramak irudikatu ditu airean, Galdak lanbide bakoitza zertan datzan eta zelan gauzatzen den ez ezik, haietako bakoitzaren ekarpen fisikoak zer-nolakoak diren ere ikus dezan; eginbeharrak aurreratu eta bere burua prestatu nahian, ogia eta barazkiak usaindu, ukitu, dastatu... ditu. Ogia asko gustatu zaiola eta barazkiak ez dituela batere atsegin izan iruditu zaio Mesi (aurpegiko keinuetan igarri dio); hala ere, berehala aldatu zaio begitartea, eta serio jarri da.

—Hitz egingo dugu, Mes —esan dio, aiko-maiko dagoelako bainoago, oldozteko eta eztabaidan hasteko edota azalpenik emateko gogorik ez duelako, garbi baitauka ogibide egokiak izan daitezkeela eta asko goza dezakeela ogia egiten (eta, batik bat, hura jaten); barazkien kontua Mesen ardura izango dela ebatzi du—. Tira, Noain harira, eta konta

/ Ipuina

diezazudan esatera nentorkizuna. Jakinarazi nahi nizuke Albiztur txar batzuen berri eman behar nizukeela: abegi egingo digun izarbeleko biztanleen historia irakurtzen aritu naiz, eta esan behar nizuke ez daudela gu bezain aurreratuta; are gehiago, oso atzeratuta dabiltzala irakurri dut Beintzat Labaienen azken txostenean. Badirudi ez dela eginkizun batere gozoa izango...

—Langile finak gara, Galda; zerbaitegatik hautatu eta igorri gintuzten gu. Dakiguna dakigun bezain txukun eginez gero, ez dugu gorabehera esanguratsurik edota kezkagarririk izango.

—Egia esan, bagara, bai; dena den... Egia izango ahal da bigarren esaldikoa!

Aste batzuk pasatu dira, eta dagoeneko iritsi dira Euskal Herrira bi estralurtarrak. Heldu bitartean, beren gorputza giza gorputz bilakatzen eta ogia, barazkiak... jaten aritu dira, bolada batez bizimodutzat izango dutena zertan datzan bizi izan, sentitu eta jakiteko, hein batean behinik behin. Aurreneko lanak etxebizitza bat eskuratzea eta hozkailua betetzea izango direla trenkatu du Galdak.

—Hau emozioa! —oihukatu du Mesek—. Lekunberri bat ezagutuko dugu!

—Mes, entzun iezadazu arretaz. Hau ez da leku berria, milioika urte omen ditu eta. Tira, ez dizut sentitzen dituzun hunkidura eta zirrara zapuztu nahi: beste toki bat ezagutuko dugu, bai. Hala ere, ibil gaitezen adi, eta lerra gaitezen geure zereginetara. Lehenengo eginkizuna bizitzeko leku bat lortzea izango da; gero egingo ditugu erosketak. Dakizunez, Euskal Herrirako bidean Bea izeneko pertsona batekin mintzatu nintzen, etxebizitza bat alokatzeko asmoz.

—Bai, gogoan dut.

—Bada, harekin elkartzekotan gara. Hitzordua dugu, eta berandu gabiltza. Beraz, jantz zaitez berehala, Bea sain dugu eta!

Hirigune baten elkartu dira. Bi estralurtarrak urduri daude, ezen aurreneko aldiz dihardute giza gorputz baten bidez funtzionatzen; nolanahi ere, ondasun higiezinaren jabeak ezer antzematen ez duenez, gero eta lasaiago hasi dira sentitzen.

—Hona hemen alokatzeko moduan ditudan bi etxeetako aurrena.

—Ze gama altuko etxea den! —adierazi du Mesek.

—Bai. Etxebizitza hau nire Izaba Kontxirena izan zen, eta etxe honekiko berebiziko maitasuna sentitzen dut, asko maite izan bainuen izeba. Gainera, hala eraikina nola etxea zaharrak izanagatik ere, guztiz Berriatua dago; egoera oso onean dago, eta txukun askoa da.

Marmarka sumatu du Galda, hiruzpalau metro atzerago, hara eta hona begira, xehetasun nahiz zoko-moko bakoitzari adi erreparatzen... eta harengana hurbildu da.

—Zer, ba al duzu laket, Galda?

—Ez... Etxeak oso sabai altua du, eta Oiartzun handia dago; hain ozena, ezen Legorreta gelditukо baikara segituan. Gainera, Arras ate itsusiak dauzka!

—Hori al da dena? Niri asko gustatu zait. Baketsua, atsegina eta lasaia dirudi; egokia, guretzat.

/ Ipuina

GALDA ETA MES

Bakarrizketan ari dela jabetu da Bea; burua eta gorputzaren eskuineko erdia atzerantz biratu, eta bi estralurtarrei aiduru da, berari noiz begiratuko dioten zain... Halako batean, haien arreta bereganatua eta berreskuratua duela ohartu orduko, solasteari berrekin dio.

—Ulertuko duzuenez, ez nioke nornahiri alokatu nahiko... Zuek baduzue izeba-osabarik hirian?

—Eeeeee... Bai, bai... —ekin dio bat-batean Mesek—. Eeeee... Zigoi tia da eta Lekei, tio. Oso jatorrak dira! Badakizu, dagoeneko badituzte urtexka batzuk, eta...

—Bai, bai... Ulertzen dut —ihardetsi dio Beak.

—Tira... Sentitzen dut, Bea. Ez gaitu konbentzitu —esan du Galdak, ekimena bere gain hartzearekin batera—. Erakutsiko al zeniguke bestea, mesedez?

—Bai, nola ez... Uste dut gehiago gustatuko zaizuela. Goazen!

Beari jarraika, alokatzeko moduan duen beste etxea ikustera joan dira; auzo berri eta erlantz batera eraman ditu ugazabak.

—Tira, honako hau duzue bestea; ikusten duzuenez, Etxebarria da.

—Oso dotOrereta, benetan!

—Bai! Etxetresna askoz hornitua dago: modernoak eta kalitate handikoak dira; horrez gain, bi logela, egongela, jantokia, trastelekua eta bainugela ditu; eta lurpean, garajea. Hori guztia gutxi ez eta, bizilagunak oso jatorrak dira, eta lasaia ez ezik, segurua ere bada auzoa. Lekuine ezin egokiagoan dago. Tira, zer deritzozue?

—Etxe hau oso aproposa dela —arrapostu diote batera bi estralurtar gizakiz mozorrotuek.

—Pozten naiz. Beste kontu bat: ez dut gustuko parrandazalerik; ez nioke zaletasun hori duen inori alokatuko etxerik. Gustuko al duzue farandula?

—Eeeee... Ez, ez; batere ez, gainera —Eratsun dio Mesek.

—Hobe. Auzo honetan tentaziorako aukera asko dago; izan ere, taberna mordoxka dago auzoan, hala nola Ei bar, Zaldi bar, Elgoi bar, Bar koxe, Untziti bar eta Esteri bar. Jendea xurgatzen dute, eta joera desegokiak sustatzeko gune apartak dira. Ulertzen didazue, ezta?

—Bai, bai, jakina... —ihardetsi du Galdak.

—Bada, tira. Niri ere toki ezinago aproposa iruditzen zait honako hau: lasaia, diskretua, neurri egokikoa... Itsas ondon dago: hondartza minutu batera daukazue eta, gauetan, Itsasuko olatuen xuxurla amultsu eta kulunkaria entzuten duzuela lokartu ahalko zarete, ur-ohe baten bazeundete bezala, goxo-goxo...

—Honek Zaldu ondo egiten du, e! —xuxurlatu dio Mesek Galdari; hark Okondokoa eman dio eskuineko saihetsaldean.

—Horretaz aparte —jarraitu du Beak—, autobus nahiz tren geltokiak Usurbil daude, eta, hori guztia aski ez dela, honako bidean, fededunak zaretela esan didazue, ezta? Bada, hau da zuentzako lekua! Egoitza hau Eliz ondon ere badago; handik laurogei metrora!

—Eeeee... Bai, bai... Gero joango gara, Santu Urtziri Itoitz egitera.

—Primeran! Zer diozue? Alokatu egingo al duzue, orduan?

/ Ipuina

—Garde iezaiozu zenbatean alokatu nahi lukeen... —xuxurlatu dio Mesek Galdari; hark, ordea, ez dio jaramonik egin.

—Bai, geuretzat nahi genuke! —adierazi du lantaldearen buru denak.

Damutu zaio itaundu ez izana... Parisko obeliskoa baino zurrunago eta zurbilago dago Galda, baita Mes bera ere, zer esan edo zer egin ez dakielarik. Gorputzeko gihar guztiak tenkatu zaizkie biei: izoztuta daudela ematen du; ezintasunaren amaraunean estekatuta, indarge... Betebeharraren, epemugen... presioak eta presak eraginda, baietz esan diote Beari; damuak damu eta alhadurak alhadura, sinaturikoa bete behar, eta hilero sekulako dirutza ordaindu beharko diote, harrera egin dien berrogeita lau metro karratu eskaseko etxean bizi izatearen truke...

—Ńo! Garesti ordaindu beharko dugu egonaldia... —esan du Mesek, etsipenez—. Beldurgarria iruditu zait prezioa; bertan behera uzteko, berandu, ordea, sinatua baitaukagu.

—Bai... Beste gastu batzuk zaindu behar, hortaz... —beti bezain zuhur, adi, pragmatiko eta pentsakor, berriz, Galda—. Erne ibili beharko dugu hemen, Mes; hori ematen du, behinik behin. Tira, joan gaitezen erosketak egitera; hutsik dugu hozkailua, baita sabela ere, eta nik bederen tripa zorria daukat. Horko Zaldi biak ere jango nituzke —adierazi dio, koadro bateko bi zaldiak seinalatuaz batera—. Zuk ez, ala?

—Tira, bada. Egin ditzagun erosketak!

Mesek auzoko denda txikietan erostea proposatu duela eta, banandu egin dira: Galda "fruta" izeneko jakiak erostera joan da; Mes, berriz, "arraina" delakoa erostera.

—Egun on! —oihukatu dio arrain saltzaileari.

—Halan ekarri! —erantzun dio irribarretsu hark—. Zer nahi zenuke?

—Eeeee... Baita zuri ere! —erantzun dio Mesek.

Arteaga sentitu da, eta durduzatuta gelditu da Mes, bestelako arrapostua espero baitzuen; durduzadura hori arintzen hasi zaion heinean, ordea, ekuratzen hasi da, eta hitz egitera menturatu da.

—Aizu, zenbat Baliarrain honek? Legatza da, ezta?

—Bai, legatza da, eta kiloak 16 euro balio du.

—Bada, jarri Legaz pi eta Irun kilo Ataun, mesedez.

—Lau —dio Galdak, arrandegian sartzeaz bat.

Erosketak eginda, oinez abiatu dira etxerantz. Bizilekurantz zihoazela, ordea, ardandegi bat ikusi dute, eta barrura jo dute, zer diren eta haietan zer egiten den ikuskatzera, espazio-ontzian aurretiaz irudikaturiko hologrametako "misterioak" bertatik bertara bizi izateko asmoz. "Gaurkoa alderdi batzuk benetan deskubritzen hasteko eguna da", pentsatu du Galdak (Mesek entzun egin du, Lurraren atmosferan sartu bezain laster aktibatu baitute telepatia-ahalmena); "Hori da", ihardetsi dio Galdari, entzun dezan. Zurtoin itxurako makila luze baten gainean belaki borobil txiki bana duten aulki banatan eseri dira.

—Zer nahi duzue? —galdetu die zerbitzariak.

/ Ipuina

GALDA ETA MES

—Nik baso bete whiski nahi nuke, mesedez —adierazi dio Galdak.

—Nik, berriz, kamamila-infusioa, otoi —esan dio Mesek.

—Urepele lardaskatua? —esan du mespretxuzko irribarre bat egiterakoan; gero, urrundu egin da.

Galdak fruta-dendako ordainagiria atera du sakelatik, eta, hura aztertu ostean, arrandegikoa eskatu dio Mesi. Tanpez, bizkarra goratu eta zuzen baino zuzenago jarri zaio; begiek, aldiz, golf-pilota bi dirudite, eta odol guztia burura igotzen hasi zaiola ohartu da Mes: Amurriotzen ari da Galda.

—Ostitz! Astakirten uzki-aho halakoa! —taberna barruko bezero guztiek Galdarengana bideratu dute begirada.

—Zer gertatzen da, Galda? OhOiondu egin al digute? —itaundu dio Mesek, arduratuta eta nahigabetuta.

—Irurtzun egin digu arrain saltzaile zital horrek!

—Zizur al zaude?

—Egongo ez naiz, bada! Begira honi guztiari! —Poltsa ireki du, Mesek barruan zer dagoen ikus dezan—. Hiru kilo Lezokin, bi kilo Elantxobe... Zer da hau guztia? Lapurdi alproja gorotz-pote galanta! Buskantza lizundua!

—Lasai zaitez. Gero joango natzaio arrain saltzaileari, kontu eske. Orain utz iezaiozu Loiu egiteari, tabernako guztiak begira dauzkagu eta.

Paper puska tintaz zikindua erakutsi dio kideari, eta egia dela egiaztatu du hark. Azpikeriaz jokatu du. Galdak trago batez hustu du edalontzia, eta etxeratzeko tenorea dela adierazi dio keinu batez Mesi; bat-batean, tabernaria hurreratu zaie.

—Zer jazo zaizue? —galdetu die zerbitzariak, ezinezkoa izan baita Galdaren suminduraren tonu ozenetik libratzea.

—Arrandegikoak iruzur egin digu: eskatu ez dizkiogun arrain bat baino gehiago kobratu dizkigu!

—Bai, ez dago harekin fidatzerik; nik esango dizuet non erosi aurrerantzean arraina, kalitate handikoa eta hangoa baino freskoagoa.

Dirua barra gainean utzi, eta alde egin dute; tabernakoak, behintzat, ez bide die amarrurik egin, eta berarekin hartu-emanetan hasteko parada izan dute. Lehenengo eguna, eta aldeko konturen bat, bederen... Galda Arnegitzen hasiak misioa lehenbailehen gauzatu behar luketela erabaki du, ez baitira oporretara etorri; arrapastaka jardun ez arren, lehenbailehen. Mesek dena entzun dio. “Hura bukatutakoan, parranda, nik ere probatu nahi baitut *whiski* delako hori, probatu nahi dudanez”, entzun dio Galdak Mesi.

Hurrengo asteak lanari erabat emanak eman dituzte. Auzoko Burgindegira maiz joan izan dira, afera gauzatzeko behar duten materiala erostera, eta, hala han nola tabernan egotearen ondorioz, hango zerbitzariaren lagunak bakarrik ez, hango bezero askorenak ere badira gaur egun, zeinak informazio iturri gisa baliatzen dituzten, zuzenean (galdetuta) eta zeharka (behatuta). Horrez gain, egun osoan zehar pizturik izan ohi duten gailu bati arreta handiz

/ Ipuina

begiratzen diote, eta egunkaria irakurtzeari ekin diote. Behin, zeharo estonatuta, Galdak hau esan dio Mesi, izparringia ematearekin batera:

—Mes, Leitzazu! Eta, bide batez, errepara iezaiozu elkarrizketarekin batera datorren argazkiari.

Ezin zuen sinetsi: argazkian, beren "lagun" tabernaria ageri da, ardandegiaren jabe dena zerbitzaria izateaz gain, eta ez du nornahi alboan: itzal handiko pertsona baten alboan dago, eta biak irribarretsu daude. Hark argazkiari so ikusi ditu, eta, harro, hauxe esan die:

—Zer, harrituta, ala?

—Ezagutzen al duzu? Eta jatetxe baten jabea ere bazarela dio. Non dago?

—Bai! Ezagutu bakarrik ez, lagunak izan ere bagara. Eta jatetxea alboko lokalean dago; ondoko atetik sartzen da —esan du tabernariak, bularra hanpatuta zuelarik.

—Ba al duzu afaltzeko lekurik?

—Bai, jakina. Afaldu egin nahi al zenukete?

—Bai, gaurkoa izango da gure azken eguna; joan beharra daukagu, eta elkar agurtzeko modu polita izan litekeela pentsatu dugu.

—Bazoazte? Nora? Beste norabait bizitzera?

—Bai. Lantz kontuak, badakizu. Lan egiten dugun enpresak Ituren bat sinatu du beste batekin, eta…

—Beste toki batera joan behar duzue lanera… Tira, bada, nahi baduzue, gaur afaltzera gonbidatuko zaituztet, egun berezia baita gaurkoa. Hango koadroan duzuen gizon hori —hatz erakuslearekin destatu du— nire aitona da, Don Eztebe. Arotza ei zen, eta, hemen lanik ez zegoenez, Koreara joan omen zen, garai hartako euskaldun ia denak ez bezala: "Denak Ameriketara dira joatekoak; denak hara baldin badoaz, zertara joango naiz ni? Hobe izango dut beste norabait joan", esaten omen zuen... Hala, Koreara joan zen; han, Lu huso Jutsi izeneko emakume bat ezagutu ei zuen, eta harekin ezkondu zela entzun genuen. Markina xeme in omen zituzten... denak Mutiloak! Zazpitik zazpi! Hura marka hura! Hori dio, bederen, haiei buruzko kondairak... Seme-alabetako asko Euskal Herrira etorri ziren; tartean, nire aita. Aitonak ordu asko ematen ei zituen lanean, askotariko ondasunak eraikitzen... Lantokia iltzez beteta eduki ohi zuen, eta Ameriketara joandako lagun bizkaitarrek "Ultza man" ezizena jarri omen zioten. Nahi al zenukete hil aurretik maiz edesten zigun kontakizun bat aditu?

—Bai! —esan zioten Galdak eta Mesek, aldi berean.

—Bazen behin jarrera harroputz samarrak izan ohi zituen mundutar bat. Denek uste zuten bere buruaren nahiz bizitzaren jabe zela, baita inor baino askeagoa zela ere; pertsona ustez lokabeak, jakina, abagune bakoitza aprobetxatzen zuen gainerakoei hori sinetsarazteko, herrikideen pentsamoldean finkatu nahi zuen ideia hura sendotu eta indartsuago errotu zedin. Egun baten, herriko pertsona jakintsuarengana joan zen, mozkorraldi baten herritar batzuek "hori egiteko bezain auSartaguda ez zela" entzunda. Hanpuruskeriak hanpatuta, "Ni askea naiz! Zu, berriz, zeure pentsamenduen menpe bizi zara!", esan zion. Jakintsuak, tonu apal eta patxadatsuan, galdera batzuk egin nahi lizkiokeela adierazi zion; horretarako

/ Ipuina

GALDA ETA MES

baimena ematen ziola adierazi zion besteak, keinu batez.

—Ea, esan iezadazu. Zuk lortzen, ekoizten edota garraiatzen al duzu zeure bizilekura, bertan baliatzen duzun elektrizitatea? —galdetu zion jakintsuak.

—Ez —erantzun zion mundutarrak.

—Ea, esan iezadazu. Zuk lortzen edota ekoizten al dituzu jaten dituzun elikagaiak? —itaundu zion jakintsuak.

—Ez —ihardetsi zion mundutarrak.

—Ea, esan iezadazu. Zuk lortzen edota garraiatzen al duzu edaten duzun ura? —galdegin zion jakintsuak.

—Ez —arrapostu zion mundutarrak.

—Ea, esan iezadazu. Zuk lortzen, ekoizten edota garraiatzen al duzu zeure bizilekura, bertan baliatzen duzun Internet zerbitzua? —galdetu zion jakintsuak.

—Ez —erantzun zion mundutarrak.

—Ea, esan iezadazu. Zuk lortzen edota ekoizten al dituzu hartzen dituzun botikak eta sendagaiak? —itaundu zion jakintsuak.

—Ez —ihardetsi zion mundutarrak.

—Eta, azkenik. Esan iezadazu: zuk al daukazu zure dirua? Digitala esan behar al nuke?, zuk billete fisikoak jaso arren, banketxean ez baitago modu horretan bezeroen diru guztia —adierazi zion jakintsuak.

—Ez; banketxeak dauka —arrapostu zion mundutarrak.

—Ea, esan iezadazu. Zuk lortzen edota ekoizten al duzu zure ibilgailuak funtziona dezan haren biltegira isurtzen duzun erregaia? —itaundu zion jakintsuak.

—Ez —ihardetsi zion mundutarrak.

Nahiz eta mundutarrak argi eta garbi hauteman eta antzeman jakintsuak galdetzen jarrai zezakeela (galdera garrantzitsuenak, kasu), hura isildu egin zen, zerbaiten aiduru balego bezala. Bat-batean, mundutarrak behetik gora eta barrutik kanpora inarrosi zuen astinaldi bat sentitu zuen bere baitan; arnasaldia eten zitzaion, eta begiak erabat ireki zituen: ulertu egin zuen, egiaren sakontasun betean eta intentsitate burtzoragarriz. Burumakur, etxera itzuli zen.

Gure bi estralurtarrak aho bete hortz geratu ziren. Arreta handiz entzun dute urpean ere arnastu egiten duela sinetsarazi nahi dienaren azalpena, eta harenganako mirespen handia hasi dira sentitzen.

—Eta zer da ondoko koadroko irudi hori? —galdetu dio tanpez Mesek.

—Hori munduko futbol-talderik onenaren armarria da: Bilboko Athletic. Atxondo sentitzen naiz armarri hori ikusten dudan bakoitzean! —ihardetsi dio, fier, tabernariak.

—Zer da futbola? —itaundu dio Mesek, aurretiko zeregin guztiak txukun egin ez dituen seinale.

Galdak haserre begiratu dio Mesi. Une bat geroago, paretik ziztu bizian igaro zaion

/ Ipuina

objektu baten ezusteko hegaldiak ikaratu egin du: tabernariak hautsontzi bat jaurti dio Mesi. Galdak, orduan, haserre begiratu dio zerbitzariari.

—Burlata egin dit! —ahalegindu da desenkusatzen zale zuri-gorria—. Futbola zer den galdetu ez dit, bada, arantzak barrura dituela dirudien Mutriku kakajale arraio horrek!

—Hori ez da Eugia! Nire asmoa ez zen zuri iseka egitea! Nik ez dakit zer den futbola; horregatik itaundu dizut! —kexatu zaio Mes, etxerako lan guztiak egin ez dituela ohartuagatik ere.

—Aski da! Ez dauka zertan jakin zer den! —adierazi dio tabernariari—. Eta zu, zaude isilik! —agindu dio Mesi—. Tira, hitz egin dezagun afariari buruz —Mesi eta tabernariari begiratu die Galdak.

—Zer afaldu nahi zenukete? —galdetu die zerbitzariak.

—Hasteko, Legariak nahi genituzke: platerkada bana dilista eta platerkada bana babarrun; jarraitzeko, Ollosko errea; eta bukatzeko, nahi duzun postrea! Edateko, pitxerkada bete Urrotz —adierazi du Galdak.

—Nik, whiskia! —erantsi du Mesek.

—Ńo, ez duzue aukera hau desaprobetxatu behar, ikusten dudanez... —komentatu du tabernariak—. Tira, nahi baduzue, Lastur afalduko dugu; eta whiskia, afaldu ostean, ez lehenago. Aditu al duzu?

Barre-algara artean joan zitzaien gauaren hasierako zatia; irri eta kontu, karkaila eta pasadizo, ohartu orduko zeharo hordituta iritsi dira etxera. Hurrengo egunean, sekula bizi izan gabeko ondoez bitxi bat sumatu dute, batez ere Galdak… Nahiz eta Mes ere whiskia edaten aritu den bart, tabernariak Erronkari egin dio Galdari, ea nork edan whiski-basokada gehiago… Kidearen egoera negargarria dela eta, Mes joan da burdindegira, azken eginkizuna gauzatzeko behar duten tramankulua erostera; ordurako askotan joana denez, gero eta konfiantza-maila handiagoz jokatzen du hango beharginak, eta betiko bezeroa balitz bezala ematen dio arreta dagoeneko, hara joaten duela gutxi hasi bazen ere.

—Hara! Egun on, Mes! A zer-nolako aurpegia dakarzun! Zer, Lesaka, ala? Bart majo, e! Gustura, farandulan, e! E… Aizu, Mes, non da zure laguna? Hura ere bestondoak erasanda?

—Galda? K.O. dago, sofan botata. Ziburuko min galanta duela esan dit… Ni baino okerrago dago.

—Ibili!, ibili! Ibili! —esan dio, irribarretsu—. Tira, zer nahi duzu?

Behar dutena erosi ostean, etxera itzuli da, joan aurretiko azken zeregina egitera, Galdak atseden hartu bitartean. Pentsamenduak ordenatu, zehaztu eta kodetu ditu, haiekin osaturiko txostena beren galaxiara modu telepatikoan eta uhinen bitartez igorri aurretik.

/ Ipuina

GALDA ETA MES

» *Badirudi oso ideia edo sinesmen hedatua dela zerbaiten berri edukitzea "jakitea" delakoa, baita nolanahi ikasten delakoa ere; esan liteke arinkeria handiz baliatzen dituztela aditz horiek. Ahaztu egiten zaie esperientzia guztietatik ez dela ikasten, baldin eta egin beharrekoa egiten ez bada. Bizipen guztietatik ikasi egin daiteke; esperientziaren bat bizi izanak, ordea, ez du bermatzen ikasi egingo denik, ikasteak ahalegin handia eta osagai jakin batzuk baititu ezaugarritzat. Horrez gain, bizi izan ezean eta bizi izandakoa aztertu ezean (aztertu gutxienez), ez da jakiterik izaten. Beraz, esan liteke "deskubritu" edota "konturatu" izan litezkeela haietako askok "ikasi" eta "jakin" hitzen bidez izendatzen dituzten kasu askotan baliatu beharreko aditzak. Hala, agerikoa dirudi ez direla ohartzen inork ez dakiela asko; hots, denek dakitela (oso) gutxi. Halaber, oso hedatua dirudi jakin ez arren jakingo balute bezala solasteko joerak.*

» *Horretaz aparte, "aditu" hitzaz izendatzen dituzten pertsona ugari agertzen da "hedabide" delakoetan; gure ustean, haietako asko ez dira jite horretakoak. Gainera, ezberdinak dira pertsona "kultua", "informatua" edota "jakintsua" izatea, eta bereizketa horrek aurreko paragrafoan adieraziriko "ikasi" eta "jakin" aditzen kontuarekin du zerikusia; badirudi "ez ikasteko" ikasten dutela askok (gure hizkuntzan irakurriko duzuenez, arazorik gabe ulertuko duzue).*

» *Haietako batzuek batere eredugarriak ez diren jokamoldeak izan ohi dituzte maiz (herritarrek modu berean joka dezaten), eta esan liteke orain arte aipatutako guztiak funtzio edota xede bat baino gehiago dituela, hala nola ideologia desberdina dutenen arteko Aiherra eta begirunerik eza izatea nagusi (herritarren artean etsai edota izu giroa nagusitzea, alegia); elkar epaitzea, besteek esateko dutenari jaramonik egin gabe eta arretarik eman gabe, hobeak direlakoan, elkar sekula ez ulertzeko eta jendearen pentsaera betikotzeko (beste norbait ulertzeak harenganako gertutasun-, maitasun- eta batasun-maila handiagoak ez ezik, jarrera irekiagoa nahiz malguagoa izatea ere eragiten du, besteak beste); "adituek" ez bezala oldozten duten askok beren ideiak baztertzea, oker daudelakoan (ez baitira "adituak"), eta jasotakoak gidatzat hartzea; herritarrak nahastea, egia batzuk froga ezin ditzaketenez, haiek nekez deskubri ditzaketenez edota haiek identifikatzeko borondate ahula dutela esan daitekeenez (aurretiaz eta berariaz erkindua, aisialdia bestelako jarduera batzuk egiten emateko); eta abar. Hutsune horiek nork bere usteekin, sinesmenekin… betetzen ditu, zeinetako asko eta asko aurretiaz baldintzatuak baititu.*

» *Horrez gain, ustezko "jakintsu" horiek beste funtzio bi ere betetzen dituzte: bata, haiek noren eta zeren zerbitzura eta agindupean ari diren ez dakitenez eta errudun/erantzule bakarrak direlakoan, herritarrek beren amorrua haien aurka bideratzea, era zehatzean (noiz edo noiz) edo abstraktuan (eskuarki) edota balizko lege-ondorioen itu izatea; bestea, haien ez besteren asmoak direlakoan, pertsonen bizitzak modu bortitzean astintzen dituzten giza egitateen arteko lotura beharraren arabera bideratu edota disimulatzea (egileak, eragina,*

/ Ipuina

denbora eta lekuak…), dena egiaz nork planifikatzen eta gauzarazten duen kukutzeko. Aurpegia erakusten dutenek men egin ezean edo ordurako "balio" ezean, desagerrarazi egiten dituzte beren postutik, eta beste batzuk paratzen.

» ▭ ✡ ○ △ ⇨ △ ✡ ▭ ○

» *Herritar ugarik itsu-itsuan sinesten du jasotzen duen oro (edo "ez zaio axola"), eta badakigu zer gertatzen zaien "egia" deskubritu(a) dutela uste dutenei: egia bilatzeari uzten diote (edo ez dira hasten), dagoeneko badakitelakoan. Hori gutxi balitz bezala, egia diotenak norbera manipulatu nahian ari direla ondorioztatzen dute batek baino gehiagok, eta egiarekiko erresistentzia eragiten/handitzen zaie. Bestalde, itsumustuan sinesten ez dutenak gero eta gehiago direla badirudi ere, esan liteke oraindik ere gutxi batzuek markaturiko eran jokatu ohi dutela maiz. Alegia, egia ezkutatzen dietela eta gezurra adierazten dietela pentsatu arren, hori egiten dutenek bultzatutako igarobide ezin estuagotik pasatzen dira; beldurren baten kariaz, segur aski.*

» *Ondorioz, iruditzen zaigu, jokatzeko orduan behintzat, ez dituztela bereizten egia eta sinesmena. Sinesmen bat egiarekin bat etor liteke; edo, ez. Gezurretan oinarrituta egonagatik ere, sinesmenek ondorioak eragiten dituzte, egiak bezala; hala ere, hark ez bezala, gezurrek ez dute nork bere burua hezi eta heldutasun maila handiagorik gauzatu edota erdiesteko balio.*

» *Azken finean, egiak gezurra bera ere hartzen du bere baitan, askoz handiagoa baita: gezur bat gezurra delako egia (gu kontziente izan edo ez, asmoz eta borondatez esan edo ez). Aintzat hartu behar genuke egiaren bat identifikatzeak eta ulertzeak hari loturiko gezur oro baliogabetzen duela; gezur bat identifikatu zein ulertzeak, aldiz, ez du egiarik argitzen ezinbestean (aurrerapausoa izan arren, jakina). Azken buruan, denak dirudi ematen duen hori; kontua, ordea, hau da: ea badirudien badena, bai baitakigu egia(zkoa) den guztia erreala dela, egia(zkoa) izateaz gain; erreala den guztia, ordea, ez da egia(zkoa).*

» ~~*Beste hainbat eta hainbat arlotan ere nabarmena deritzogu adigai bakoitza zertan datzan argi ez izate horri, eta horrek asko mugatzen du, behin-behinean, hemengo biztanleen bizimodua eta garapena. Norberaren boterea autohezikietaren bidez handitzen da, eta, horretarako, nork bere minei arreta eman behar izateaz gain, haiek landu nahiz eraldatu behar lituzke, ez baitago abiapuntutzat minik ez duen giza ikaskuntzarik.*~~

» *Aurkako joera da nagusi, ordea, batzuei hori komeni zaie eta. Beren buruak eta herritarrak "oinazetik babesteko" aitzakia amutzat, batzuek estrategia hori darabilte, eta oinarria berbera da: egiazko boterearen falta botere errealaren bitartez konpentsatuko dutelakoan, ez dute kontuan hartzen existitzen den ezein bizi-osagai edo -indar abstraktuk ez duela existitzen den beste ezein bizi-elementu edo -indar ordezkatzen, biak ala biak existitzen direnez. Hala, gehienbat azaleko ekarpenak egiten dizkieten estimuluetan itotzen dabiltzala uste dugu, kasurik politenetan emaitzatzat iraupen oso laburreko poztasuna eta gogobetetasuna dutenak.*

/ Ipuina

GALDA ETA MES

» *Gogoan izan behar genuke bere borondatea gauzatzeko dozenaka eta dozenaka pertsonaren laguntza nahiz esku hartzea behar dituen inor ez dela boteretsua. Olde hori etikoa bezain zintzoa izan edo aurkakoa izan, egia hauxe delakoan gaude: zenbat eta pertsona gehiagoren laguntza eta esku hartzea behar izan helbururen bat jadesteko, orduan eta botere maila txikiagoa du dena delako xedea eskuratu nahi duenak, besteren borondatearen, leialtasunaren, trebeziaren… menpe baitago (neurri handiagoan edo apalagoan), eta, haietako asko iraultzen edo matxinaden beldur direnez (beren minak boteretsutzat daukan egoera pertsonala hankaz gora jarriko lieketen beldur), beren gaitasunak, ahalmena, indarra eta adimena beren oinazearen zein heldutasun faltaren zerbitzura jartzen dituzte (hortik, jakina, nekez gauzatzen da ganorazko ezer). Hala, askotariko lan zikinak egiten dizkieten milaka mertzenarioren ezinbesteko laguntza izan ohi dute: ideia-fabrikatzaileak, ideien postariak... eta laguntza armatua.*

» *Indarkeria eta kohertzio psiko-emozionalaren, instituzionalaren ("demokrazia" deritzote) edota sozialaren bidez ("bizikidetza" eta "bakea" esaten diote) jadesten ez dutena bortxakeria fisikoaren bitartez saiatzen dira lortzen (edo haren etengabeko presentziaren mehatxua "ezarian" ezarrita); beste batzuetan, aldiz, denak erabiltzen dituzte, nahiz eta larriena herritar batzuen bizimodua izorratu, zapuztu eta kaltetzeko beste herritar batzuk baliatzeari deritzogun, haiek elkarren aurka jarri eta nork bere bizi-indarra (eta denbora eta…) besteren aurka bidera dezan (ez ezeren alde).*

» *Jendaurrean indarkeria gaitzesten dute (beren irudia eta prestigioa zaintze/handitze aldera), "baliatzen duenak baliatzen duela": ez da ez etikoa ez gizalegezkoa. Bortxakeria gaitzesten dute… berena izan ezik. Haiek erabiltzen dutena "legezkoa, zilegia, etikoa eta demokratikoa" ei da (bai agerikoa, bai herritarrak ezarian inguratzen dituena eta zuzenean bezain oharkabean pairatzen dutena), eta haien helburuak "zintzoak eta prestuak" omen dira; besteenak, ez.*

» *Azken finean, haiek ez dute inor tirokatuko, badaezpada; horretarako, pertsonak erailtzeko gertu dauden eta pertsonak erailtzen dituztenen leialtasuna lortzen dute, dela beldurragatik, dela diru truk, dela laguntza eskatzen dietenen ideiekin bat datozelako, dela "abantaila", "hobari" edo "onura" batzuen jabe eginda, dela beste moduren baten... Hots, beste batzuk bidaltzen dituzte jendea torturatzera, jipoitzera, mehatxatzera, erailtzera…, eta baliteke haietako asko ez ohartzea ez zergatik ez zertarako ez nori ari zaizkion egiten mesede, ezta nor ari diren kaltetzen ere.*

» *Agerikoa dirudi zernahi egiteko prest daudela enbarazu egiten dieten pertsonen "presentzia zein eragin larderiatsua" indargabetzeko eta, azken buruan, gizarteak epai ditzan. Hala, haien aldean hobeak direlakoan, herritarrek ez diote ez arretarik ematen ez jaramonik egiten pertsona horien diskurtsoari, "ez dakit zer <<direlako>>". Perila edota zemaia, baliogabetuta, beraz; pertsona horien sinesgarritasuna, eraila, (ia) betiko, hortaz.*

/ Ipuina

» *Herritarrak errespetatzen, zaintzen, babesten… ez dituztenek, herritarrei eragindako arazoen erantzuleek, herritarren bizimodua zapuzten, mugatzen, zailtzen, itotzen, kaltetzen… ahalegintzen direnek… eragiten duten kalte horren guztiaren konpontzailetzat agertu nahi izaten dute beren burua, herritarrek beren zerbitzura eta beren alde dihardutela sinets dezaten, hau da, haietaz fida daitezen eta haien esanei jaramon egin diezaieten (bide batez, esan dezagun berek ez dutela nozitzen herritarrei pairarazten dietena; ez die eragiten edo, asko jota, askoz ere neurri edo intentsitate apalagoan). Jakina, horretarako, dena kontu nahiz arreta handiz zaintzen dute, inor kontura ez dadin (zer, noiz, non, nola eta nork egingo duen planifikatzeaz gain, ezarri nahi dituzten neurriak onartzeko diskurtsoak zehatz-mehatz definitzen eta diseinatzen dituzte, jendearen pentsamolde aurretiaz baldintzatu bezain manipulatuari logikoak iruditu dakizkion).*

Askatasuna errespetatzen dutela sinetsarazi nahi dutenak inoren askatasuna mugatzen, hersten… saiatzen dira, eta hori pertsona mota bakarrak egiten du: askea ez denak.

» ~~*Herritar gehienak ez dira ohartzen ez daudela bakarrik: beti egon dira, egoten jarraitzen dute eta hil arte egongo dira beren buruarekin; kontua da ea zer-nolako harremana duten barekin. Horren harira, gaude nork bere buruari ematen ez diona gainerakoek eman diezaiotelako exijentzia oso jarrera hedatua delakoan, baita ere emaitza baliotsua edo desiratua prozesurik gauzatu gabe (ahaleginik edo saiakera seriorik egiteke) lortu nahi izatekoa. Gainera, ez dira modu kohesionatuan bizi: taldean bizi badira ere, nor bere kasa bizi den norbanako multzoa osatzen dute, eta multzoak ez du ez inor babesten ez inor laguntzen, inoren zorigaitzak, "miseriek"… norberari ahalik eta gutxienik eragiten eta haietatik albait babestuen egoten saiatzen da eta herritar oro. Laguntzen duten askok, gainera, norbaiti laguntzeko bainoago beren buruarekin okerrago edo gaizki ez sentitzeko egiten dutela esan liteke; alegia, inoren minari baino gehiago begiratzen diote berenari.*~~

» *Beste kontu asko ere konpondu barik dituzte, eta ematen du egoerak okerrera egingo duela: Lakuntza behar dutela esango genuke.*

Mesek, ohiko jaidura umoretsuari jarraituta, honako hau idatzi zuen txosten ezkutuaren amaieran:

Bukatzeko, asmakizun edo igarkizun bat: Euskal Herriko zenbat leku edota udalerriren izenak agertu dira txostenean? Ea asmatzen duzun!

Hala ere, Mesek seriotasun handiz "idatzi" zuen transkribaturik eta esku artean dudan txosten zador hau, zeina orain dela egun gutxi helarazi zidaten (ez dut esango nork, jakina, eta, orobat, zuek ez esan inori ez badaukadanik ez haren berri eman dizuedanik). Berezia zela eta ongi baino hobeto babestua zela adierazi zidan, eta, estralurtar horiek ahalmen bereziak dituztenez, ziur zen txostena igorri bezain Fitero jaso zuela erantzuna Mesek, nahiz eta berak ez jakin zein izan zen. "Zeinen eskuek oratzen dioten, bertan azaltzen diren paragrafo batzuk

/ Ipuina

GALDA ETA MES

ikusezinak bilakatzen dira; edo, bestela, marratuta agertzen dira; edo, bestela, tinta ezin beltz eta opakoagoz estaltzen dira, hala orriaren aurreko aldea nola atzekoa; edo, bestela, gaur-gaurkoz ulertzen ez ditugun sinbolo edota irudi harrigarriak bilakatzen dira, eta mugitzen hasten dira, alde batetik bestera, dantzan ariko balira bezala. Dirudienez, irakurlearen asmoa larruazalarekiko kontaktuaren bidez identifikatu eta ezagutzeko gai da papera. Nolanahi ere, oraindik ez da txosten osoa bistaratzea lortu", esan zidan txostena eman zidanak.

Zuk, irakurle, zenbat pasarte irakurri ahal izan dituzu?

IPUINA

Bosgarren taldea

2. saria

Egilea: ***Ione Fernandez***

IZENBURUA

Erruaren orroak



/ Ipuina

ERRUAREN ORROAK

LEHENENGOA

Etorri da gaur ere bisitan eta bere begiek berdina islatzen dute, nire esku zimurtua heldu du eta ez du arratsalde guztian askatu. Kafetegiraino eraman nau gurpildun aulkian eta bertan afaltzeko ordua iritsi zain egon gara, betiko bezala. Tartean behin, nire esku gaineko zain lodiekin jolasean aritu da bere atzamarraren puntarekin, bihurguneak jarraituz ia beso erdiko tolesduraraino. Momentu batzuetan ene aurpegi zimurturantz bideratu du begirada eta biloben konturen bat aipatu dit, baina beti bezala bere begietan zalantza zegoen, ez daki istorio bakoitzarekin gozatzen dudala. Bihotza uzkurtzen zait bere *Donna karan* lurrinez jantzitako besarkada gerturatzean eta oihu egiteko gogoa nitaz jabetzen da istant berdinean ene bihotza fosilizatzen delarik.

Zaintzaileak hurreratu dira orain eta jangelarantz naramate aulkia bultzatzen duten bitartean beraien kontuez hitz egiten ari direlarik. Gehienek ez didate ezer esaten, hauek, nire alabak bezala, uste dutelako ez dudala ezer ulertzen, hezur eta azalezko altzairu bat besterik ez naiz *iktusa* eman zidanetik. Zorionez guztiak ez dira berdinak, badago erizain bat asko miresten dudana, dirdira berezi bat daukana begietan, bere bihotza koloretako esponja bat da. Txantxak egiten dizkit, bere kontuak kontatu eta batzuetan baita abestiren bat abestu ere. Azken hau ez zaio oso ondo ematen, baina badaki ni ez naizela kexatuko eta zentzu horretan nire hitz egiteko ezintasunari etekina ateratzen dio. Uste dut badakiela zoriontsu egiten nauela, horregatik dauka koloretako bihotza. Orokorrean oso ondo zainduta sentitzen naiz, jendea langilea eta atsegina da, duintasunez zaintzen naute. Zer gehiago eskatu diezaioket bizitzari orain nire seme-alaben herrian dagoen Zaharren egoitza batean egotea baino? Senideen maitasuna ere iristen zait, maite nautelako ekarri naute hona.

Ondo dakit nire alabaren begi-zuloak jada desagertu direla, baina bere begi urdinak erruz mozorrotu dira, **zaindu zintuena ezin zaintzearen errua**. Berunezko jantzi hori urtu ahalko banu hitz goxoz, idatziz… Ene begietako poesia irakurri ahalko balu? Erruak lapurtu dio hau egiteko gaitasuna.

"*Zoriontsu naiz maittia deskantsatu duzula ikusiaz, zure esku leuna egunero ukitzeaz, zaindu eta maitatu zure etxekoak nik zaindu zaituztedan bezala, horren testigu izatea baita nire bizitzako postrea*". Bihar begiekin idatziko dizut hau baina begiratuidazu maittia eta irakurri ene begietako poesia.

BIGARRENA

"*Ezetz jan 2 kiloko txuleta bat 20 minutuan*". Gure artean beti genbiltzan apustuak egiten, hori zen momentu askotan gure harremantzeko modua, horrela egiten erakutsi ziguten gure etxean eta horrela egiten jarraitu genuen. Gizonezkoak ginen eta gainera *Zestuarrak*. Kotxeekin lasterketak egin izan genituen garai batean, zoroak bezala ibiltzen ginen Itziarko bidean *"Ea nor iristen den lehenago Jazz berri-tik Txitxarrora"*. Bakarkako *giza probak* ere antolatzen genituen "*Ea nork mugitzen duen harririk astunena arrastaka idiek bezala*". Egun hori txuletaren eguna zen, pentsatu eta egin. Ikatz zakuak atera eta elkarte kanpoko parrilla piztu genuen segidan txuletoiak gainean jarriz eta puntuan zeudenean plateretan banatuz.

/ Ipuina

ERRUAREN ORROAK

Gure gustura zeuden, puntu-puntuan zeudela bagenekien sekulako odol zukua sortzen zelako plater azpian labanarekin mozterakoan, benetako euskaldunak ginen.

Banaketa egin eta gizonak hasi ziren barau luzean egondako otso gosetiak bezala haragia moztu eta irensten, murtxikatzen ez zutela zirudien. Xabi, Jokin, Asier eta Andoni zeuden lehiatzen eta Axularrek eta nik animoak ematen genizkien mugikorra eskuan, kronometroa martxan. *"Benga gizonak, erakutsi nola jaten dugun haragia benetako gizon euskaldunok!".* Bat-batean, Asierren aurpegia urdintzen hasi zen eta ezin zuen eztulik egin, itotzen ari zen! Jokin bizkarrean kolpeak ematen hasi zitzaion, baina Asierrek ezin zuen arnasarik hartu, eskuak lepora eraman zituen segundo batean ziplo lurrera erori zelarik. Nik ez nuen erreakzionatu, mugikorra hartu eta larrialdietako zenbakia aurkitzen hasi nintzen atzamarrak dardarka, 112, azkenean. Asier lurrean, HILDA. Xabi eta Axular bihotz biriketako bizkortzea egiten hasi ziren eta minutu batzuetara anbulantzia iritsi zen, baina berandu zen ordurako, OSO BERANDU.

Gauero lokartu aurretik begiak itxi eta Asierren aurpegi urdina ikusten dut, **ene bihotzeko erruak urdin kolorea dauka**.

HIRUGARRENA

Larrialdietan nago eta erizainak gernu lagina jasotzeko pote bat eman dit pixa egitean mina daukadalako. Galdetu dit ia haurdun nagoen neure adina kontutan izanik irudi froga egiteko arriskutsua izan daitekeelako. Nik "ez dut uste" esan diot eta handik bi minutura bote horia bueltatu diot *Bitter kas* koloreko gernuarekin. Medikua deitzera atera da eta kontsulta batera pasa gaitu. Gorka eta biok plastikozko aulki hotzetan eseri gara medikuak esango duenaren zain. *"Espero bezala gernu infekzioa daukazu eta antibiotikoa hartu beharko duzu, baina horrez gain haurdun zaudela esan behar dizut, ez dakit zu bere bikotekidea zaren (Gorkari begira). Zuen aurpegiengatik pentsa dezaket ez zenutela espero, beraz, ez dakizue zenbateko zaudeten ez ezer, ezta…? Entzuten zaudete?"*. Munduaren errotazioa gelditu da gezi batek ene urdaila zeharkatu du momentu berdinean.

Argizari zuriz egindako zelari argal batek ginekologiako kontsultara lagundu gaitu eta begirada nekatuaz agurtu gaituen emakume ileurdinak ekografoa pasatu dit sabeletik. Pantailan panpin*txo* bat agertu da, salto*txo*ak ematen, esku*txo*ak mugitzen, bizirik dagoen gizaki*txo* bat, guk sortatutakoa. Gorka lurrera erori da eta hemengo auxiliarrak hankak igo dizkio aldi berean aldizkari zahar bat erabiliz haizemaile bezala. *"Jada 16 asteko zaudete"* esan du orduan ginekologoak. Gorkak berriro itxi ditu begiak.

Etxera bidean isiltasuna izan da bidaiaren jabe, bakoitza gure pentsamenduetan murgildurik, ni azkenaldian egindako ardugabekeria guztien inbentarioa egiten eta Gorka bere bizitza nola desegiten zen irudikatzen pilula eferbeszente baten gisa.

Ilusioa kuku-gordeka ibili da azken asteetan, baina jada sinetsi dugu zer datorkigun eta orain oxigenoa errazago iristen da gure biriketara. Kalean haur jaio berriak ikustean irribarrea hurbiltzen da gure ezpainetara eta galtza bakero guztiak erretiratu ditut jada.

20 asteko haurdun nago eta errebisio garrantzitsua daukat gaur, horregatik Gorkak baimena eskatu du lantegian.

/ Ipuina

Ekografoa ikusi eta gel hotzaren sortutako hotzikararekin batera bihotza saltoka jarri zait, oso urduri nago eta hau gutxi balitz ez zait batere gustatzen ari gaurko ginekologoaren aurpegia, listua falta zait. Denbora gehiegi pasatzen ari da, ez al digu ezer esan behar? Zeren zain dago? Azken aldiz pasatzen du ekografoa nire sabeletik eta goxotasunez paper zati batekin sabeleko gela garbitu ostean esertzeko eskatu dio Gorkari. Nik ez dut Gorka esertzerik nahi, maitia ez zaitez eseri, ez zaitez eseri, baina Gorka eseri egin da eta momentu berean emakumea hizketan hasi da.

"Sentitzen dut, baina zuen alabak agenesia diafragmatikoa dauka, malformazio arraro bat da arnasketa aparatuarekin loturikoa eta hau ez da bizitzarekin bateragarria". Orain bai gelditu dela mundua eta norbait ari zait limoi zukuz bustitako espartzu zati batekin bihotza igurzten, ez dut ondo ulertu. *"Zer esan nahi duzu ez dela bizitzarekin bateragarria, izan zaitez argiagoa mesedez, gu ez gara medikuak! Errepikatu! Ez dugu ondo ulertu ezta, Gorka? Ez dugu ondo ulertu!"*. Oihuka hasi naiz, itotzear nago eta istant berean Gorka izotzez egindako panpina bat da, odolik gabekoa.

"Badakit ez dela erreza, baina gazteak zarete eta berriz ere haurdun gera zaitezkete. Orain fetua txikia da eta abortatzeko momenturik egokiena da, tratamendu bat emango dizugu erditzea martxan jartzeko egun batzuk pasa ostean".

Lehenengo hiruhileko irudiak datozkit burura, ardoak, zigarroak, lagunen kanutoei emandako kaladak, parrandak… Ez nekien haurdun nengoenik! **Nork dauka leku gehiago orain, erruak edo minak?** Hau mina, benetan itoko naiz, ito nahi dut, itotzea merezi dut.

LAUGARRENA

Ederki pasatzen genuen, jolasa besterik ez geneukan buruan, momentua benetan bizitzen genuen eta bizitza mokaduka irentsi.

Ostirala zen, aitonak eraman gintuen parkera eta ni beti bezala Aitorrekin jolasean ari nintzen. Amak guztiz debekatu zigun makilekin jolastea, oso urduri jartzen zen, baina bera ez zegoela aprobetxatuz bakoitzak bat hartu genuen, aurkitu genituen zorrotz eta luzeenak eta urmaelera hurbildu ginen hostoak arrantzatzera. Hosto ustel batzuk harrapatu ostean ezpatarietara jolasten hasi ginen eta bat batean nire makilaren punta Aitorren eskuineko begi barruan sartu zen. Inoiz ez nuen horrelako oihu ozenik entzun, oihuarekin batera benetako ezpata bat sentitu nuen ene bihotza zeharkatzen. Ospitalera eraman zuen bere aitak eta bertatik bueltatu zenean Aitorrek bere kristalezko begi berria erakutsi zigun. Ezin zuen begi hori mugitu baina nik une oro niri begira zegoela sentitzen nuen, panpina baten begi hotza zirudien. Guztiek esaten zidaten ez zela nire errua izan, istripuak gertatzen zirela, baina nik banekien baietz. Etxeko panpina guztiei nik neuk kartoiarekin egindako eguzkitako betaurrekoak jantzi nizkien bestela ezin nuelako lorik egin, **nire erruak kristalezko begi bat dauka.**

BOSGARRENA

Zoriontsu izan ginen garai batean, Europatik bidaiatzen, *rock and roll* kontzertuak elkarrekin ikusten, lehenengo ilaretan salto eginez ibiltzen ginenean gizon bizardunez

/ Ipuina

ERRUAREN ORROAK

inguraturik. *Surra* inguruko zelaietan etzanda ematen genituenean orduak nik *Boli Bic* batekin zure bizkarreko txokolatezko izarrak elkartzen nituelarik konstelazio berriak sortuz, eguzkiaren izpiei esker ugaltzen ziren konstelazioak, haginkadaka jaten nituenak. Zenbat barre egiten genuen elkarrekin, etorkizuna irudikatu. Hau guztia jada deseginda zegoen, gure istorioko pasarte eder bat besterik ez zen izan, zurekin hitz egin behar nuen.

Jada ez geunden ondo Maite, gure arteko maitasuna amaiturik zegoen, elkarbizitzaren pisua, desiraren amaitzea eta monotonia. Nik maite zintudan, baina ez nengoen maiteminduta, ez nuen zurekin jarraitu nahi, aldaketa bat behar nuen.

Hosto lehorrez apaindutako astelehen hartan esan zenidan ikusmen bikoitza zeneukala eta argiak mintzen zintuela eta ospitalera eraman zintudan, oso beldurtuta zeunden eta zaindu egin nahi zintudan. Froga ugari egin ostean neurologoarengana bideratu zintuzten eta honek esan zizun Esklerosi anizkoitza zeneukala. Putzu sakon batera erori zinen orduan, zure etorkizuna gurpildun aulki baten irudikatu zenuen, heziketa fisikoko irakasle izateko ametsa desegin zitzaizun bat-batean, Xoxoteko mendia ere hauts bilakatu zen pentsamendu horiekin batera. Ezin zintudan momentu horretan utzi, bihotzak ez zidan uzten. Bihotza edo kontzientzia zen? Zurekin putzura salto egitea erabaki nuen eta putzuan ito naiz zurekin, Maite.

Hemen naiz zure gurpildun aulkia bultzatzen 20 urte geroago. Gorroto zaitut. Zer egin didazu? Nire bizitza eman dut zugatik, horregatik egiten dut larrutan beste emakume batzuekin, ez dakit noizbait esateko gai izango naizen, baina ez al dut hau merezi? **Erruaren errua izan da hau guztia,** *karma* andereak zer esango du hau guztiaren inguruan, zintzoa izan naiz edo ez?

Desberdinak izan daitezke baina sakonak izan ohi dira beti. Askotan bizitza osoan zehar entzuten ditugu, segur aski, ia guztiok entzungo ditugu noizbait eta zerbait ezkutatzen da beti beraien atzean. Entzun ditzagun arren ERRUAREN ORROAK, baina ez diezagutela loa kendu.

IPUINA
Bosgarren taldea
3. saria

Egilea: ***Jabier Martinez***

IZENBURUA

Bi txerrikumeak



/ Ipuina

BI TXERRIKUMEAK

Berlin,1945

Arthurrek leihotik so egin zuen. Inor ez zegoen kalean. Jendeak ihes egin zuen. Berlinen burdin okerrak eta harri sakabanatuak baino ez ziren ikusten. SESBeko armada sartzear zegoen. Oraindik Bigarren Mundu Gerrak jarraitzen zuen. Arthur, urduri, mugitzen zen bere amaren logelan. Eguna pattala. Eguzkia, hodei grisen artean, apenas ikusten zen. Arthur Scholz azazkalak jaten hasi zen.

—Lasai, ama, ez dizute ezer egingo! —esan zuen Arthurrek leihotik.

Ama ohean zegoen. Etzanda, sabaira begira. Ez zuen tutik esaten. Orain dela bi egun bonbardaketa batek harrapatu zuen, eta koman zegoen. Apenas arnasa hartzen du. Bonba batek teilatua txikitu zuen, eta sabaiko zati handi batek buruan jo zuen Henriette. Arthur eta bere ama azkenengo solairuan bizi ziren, eta bonbardaketa guztiak pairatu zituzten. Eskuak sabel gainean, gurutzatuta. Hesgailu zikin batek burua estaltzen zion, odolez beteta zegoen, baina Arthurrek ez zeukan besterik. Ondoko mahaitxoan pitxer handi bat urez betea, eta barazki-pure arrastoak plater hotz batean. Henriettek ez zuen ezer jaten, eta are gutxiago edan. Ohean bustita zegoen, amak ez zuen urik tragatzen, eta edatean dena jausten zen. Burkoa purez zikina zegoen, eta logelak txiza usaina zuen. Arthurrek logelako leihoko bitarte bat ireki zuen, baina hala ere kiratsa ez zen joaten. Ohe gainean, "hiru txerrikumeak" ipuina, azalean hiru txerritxoak beldurtuta eta otsoa ahoa zabalik, erakusten bere hortz handiak.

—Lasai ama, sartzen badira, hilko ditut! —berriro oihukatu zuen Arthurrek.

Arthur ispilu aurrean ipini zen, eta bere jantzia gainbegiratu zuen.

Deutsches Jungvolk-ren jantzia zen. Praka beltza, alkandora kanela, eta lepotik zapi beltza Gilwell korapilo batekin. Bere buruari begiratu zion, eta harro sentitu zen. Ilehoria, begiak urdinak, benetako alemaniar bat zen. Bere aitak ikusi balu, harro sentituko zatekeen.

Arthurrek leihoa zabaldu zuen, burua atera, eta bi aldetara begiratu. Ez zegoen inor kalean. Hutsik. Isiltasuna putzuetako uretan nabaritzen zen. Atzo, auzokoek maletak hartu zituzten, eta ihes egin zuten. Bizilagun batek auto bat zeukan, baina Arthurren ama ez zen sartzen, autoa beteta zegoen eta. "Lasai, anbulantzia bat bidaliko dizugu" esan zioten. Gerra hasi zenean auzoko gizon indartsuenak joan ziren, gero gizon arrunten bila etorri ziren, gero gazteen bila etorri; azkenean, pixkana-pixkana, auzoa hutsik geratu zen. Kanpoaldeko auzo txiki hartan haurrak, emakumeak, elbarriak eta atsoak bakarrik bizi ziren. Arthurrek ez zuen laguntzarik lortu bere ama ospitale batera eramateko. "*Joan! utzi zure ama, ezin da sendatu, hiltzear dago. Salbatu zure bizitza!*". Baina ez, ama da ama, eta Arthurrek inoiz ez zuen lagako bere ama. Orain, etxean zegoen SESBeko soldaduen zain, heriotzaren zain.

Bonbardaketek hiria erabat deuseztatu zuten, batez ere Arthurren auzoa. Sobietarrek Oder ibaia zeharkatu zuten, eta hiria nahi bazuten, Arthurren auzotik sartu behar zuten. Berlin inguratuta zegoen, hegoa izan ezik. Jendeak bere gauzak hartzen zituen, eta handik ihes egiten zuen. Berlin utzi eta deserriko bidean jarraitzen zuen jendeak. Atzean paraje ilunak, heriotza eta bonbak geratzen ziren, baina ihes egitea ez zen erraza.

/ Ipuina

BI TXERRIKUMEAK

Arthur eraikineko atalondora jaitsi zen, eta atean ipinitako barrikada berrikusi zuen. Dena ondo ipinita zegoen, puzzle bat izango balitz bezala. Atearen atzean aurkitu zituen mahaiak, armairuak eta aulkiak, dena ondo pilatuta, atea zabalduko balute ere, barrikada horrekin ez lirateke erraz sartuko. Ama defendatu behar zuen kosta ahala kosta. Orain dela lau egun auzoko azokan, jada erdi lagata, Arthurrek entzun zituen beste herri bateko emakume iheslari baten hitzak: "*… Bai… sobietarrak nire herrira ailegatu ziren…, eta gauza bat esango dizut…, nire alaba harrapatu zuten.., esan zuten kolaboratzaile bat zela… azkenean aske utzi zuten, baina betirako irribarrea galdu zuen… torturatu zuten… bueltatu zidaten trapu zikin bat balitz bezala… harrezkero, gauero, negar egiten dut… nire begiak malkorik gabe geratu arte... Irribarre egin gabe bizi daiteke, baina ez malkorik gabe*". Arthurrek hitz haiek buruan sartuta zeuzkan. Beldurra sentitu zuen. SESBeko soldaduek, herri batean sartzen direnean, emakume guztiak bortxatzen zituzten, errukirik gabe, ez zitzaien inporta neskatilak edo atsoak. Piztia basatiak bezalakoak ziren, oso mendekariak; ez zeukaten pietaterik, baina aliatuek ospe berbera zeukaten, batez ere amerikarrek. Bortxaketak, zoritxarrez, gerraren eta gizonen ondorioa ziren. Azkenean, zibilek gerraren zorigaitzak jasotzen dituzte, nahiz eta ez nahi izan; historian zehar beti berdina izan da. Arthur beldur zen, berarentzat bere ama munduko garrantzitsuena zen.

—Ama, ipuinarekin jarraituko dugu. Benga, hiru txerrikumeek irabaziko dute… Adi egon —esan zuen Arthurrek. Gero liburua zabaldu zuen, eta maitasunez bere amaren ondoan eseri zen.

"*…eta lastozko etxetxoa bota egin zuen. Txerri txikia izuturik, anaia ertainaren etxera abiatu zen laguntza bila, baina otsoak atzetik jarraitu zion. Otsoak, putz eta putz egin, eta egurrezko etxea bota egin zuen…".*

—Itxaron pixka bat ama, barrikada berrikustera joango naiz. Oraintxe bertan etorriko naiz.

Arthur eraikineko atalondora jaitsi zen. Eskailerako maila zaharren soinuak bere posizioa salatzen zuen. Barrikada berrikusi, eta patxadaz berriro bere etxerantz abiatu zen. Baina bigarren solairuan gelditu egin zen. Etxean ez zegoen ezer ahora eramateko. Ez jateko, ez edateko, pitxarreko ura bakarrik geratzen zen. Bigarren solairuko atea zabalik zegoen. Ulrrich jaunaren etxea zen, baina ez zen sartzera ausartzen. Ulrrich jaunak "Friedrich Wilhelms Universität"-en historia irakasle lan egiten zuen. Arthurren aitarentzat Ulrrich jauna marxista madarikatua zen; "*Ez fidatu horrekin, komunista da*" esaten zion bere aitak, baina Arthurrek ez zion kasurik egiten, beti, ahal zuenean, Ulrrichen etxean sartzen zen, honen liburutegi handiko liburuetan kuxkuxeatzeko. Batez ere, geografia liburuak; asko gustatzen zitzaizkion mapetako koloreak eta animaliak agertzen ziren orriak. Ondo pentsatu zuen, eta, azkenean, atea, hankarekin, emeki bultzatu zuen. Sartu eta etxea miatu zuen. Liburutegia berriro ikusi zuen. Liburuen artean Arthur Schopenhauer-en bati erreparatu zion Arthurrek, "*Die Welt als Wille und Vorstellung"* liburu horri esker bere amak Schopenhauer ezagutu zuen, eta bere ohoretan, Arthur zen izena. Gose zen. Hasieran beldurrez, bazekien ez zegoela inor, baina beldurra zeukan. Dena isilik, paretak geldirik, itzalak izozturik. Gerraren baretasunak ikaratzen zuen. Arthur logelara, isilpean, hurbildu zen, eta armairua arakatu zuen. Arropen artean pistola zahar bat topatu zuen. Ulrrich jaunari ahaztu zitzaion, antza. Pistola hartu, eta

zabaldu. Kargagailuak bala bat bakarrik zeukan. Arthurrek, eroak bezala, barre egin zuen, irabazlea sentitzen zen. Orain bai, pistola batekin SESBeko soldaduak ez lirateke sartuko, beldurrez ihes egingo lukete. Ulrrichen etxea miatzen jarraitu zuen. Ohe azpian janari latak zeuden. Lekak, garbantzuak, babarrunak, esne-hautsa… Arthurrek eskua luzatu zuen, garbantzu lata bat oratu eta etxera igo zen.

Baretasuna airean sentitzen zuen. Kalean ez zegoen inor. Zeru grisak ez zuen ezer esaten, eguzkia erabat desagertuta zegoen. Berlingo eraikin suntsituek hormigoizko baso triste bat ematen zuten.

—Ama, esnatzen zarenean, garbantzuak izango dituzu! —oihukatu zuen Arthurrek lata erakutsi bitartean. Ohera hurbildu, eta bere amaren aurpegia laztandu zuen. Arretaz begiratu zion, ez zitzaion egoera gustatzen, eta bere ondoan jarri zen. Malkoak zerizkion.

—Ama, behin, txikitan, ulertu nuen ez garela betirako elkarrekin egongo, eta horrek min ematen zidan. Baina ez nuen espero orain, hain goiz! Ama behar zaitut. Geratu nirekin mesedez! —Athurrek sakon hartu zuen arnasa—. Txikitatik lagundu nauzu, beti maite izan nauzu, eta eskertzen dizut. Gaur niri tokatzen zait, hitz ematen dizut, soldadu madarikatu horiek ez zaituzte ukituko. Pistola bat topatu dut, eta inor ez zaizu hurbilduko. Inor ez da hona sartuko, inork ez zaitu bortxatuko, salbu zaude.

Arthurrek musu bat eman, eta xuxurlatu zion: “Maite zaitut ama”.

Gomutara etorri zitzaion orain dela gutxi bere ama zela musu bat ematen ziona gauero, lo egin baino lehen. Beti bere ama ohera hurbiltzen zen, eta kopetan musukatzen zuen. Horrekin, Arthur pozik geratzen zen.

Goiza hotza zen. Eraikineko teilatuko zulo handitik hotza bete-betean sartzen zen. Arthurrek Henriette bi burusiz estali izan zuen hotzik ez izateko. Gero, labana batekin garbantzu-lata zabaldu zuen, eta txikitu zituen garbantzuak. Amaren ahoa zabaldu, eta apurka-apurka, alferrik, janaria sartu zion. Berak, gosea baretzeko, hurrupaka edan zuen latako salda hotza.

Amari lau hortz falta zitzaizkion. Bonbardaketan galdu zituen. Arthurrek, lehenengo hortza noiz jausi zitzaion gogoan zeukan. Ahoa zabaldu zuen, eta bere amak, maitasunez, hortza mugitu zuen erauzi arte. Arthurrek bazekien prozedura: bere anaiak dena kontatu zion. Ez zeukan beldurrik, dena asimilatuta. Gero, Henriettek gaza batekin odola moztu zuen. Egun hartan, txokolate-ontza bat oparitu zioten Arthurri. Orain, ez zegoen txokolaterik amarentzat, baina ez zitzaion inporta, konturatu zen garrantzitsuena zela bere amaren ondoan egotea.

Arthur gogoratu zen bere amaren besoetan lo hartzea gustatzen zitzaiola, amaren goxotasuna sentitzen baitzuen. Bere usainak zoratzen zuen; jaio zenetik burmuinean sartuta zeukan, horixe zen bere bizitzako lehenengo oroitzapena.

—Lasai ama, ez gaituzte zapalduko —erran zion belarrira—. Egia esateko, bala bat bakarrik daukagu, baina lasai, lehenengo sartzen denari bala buruan sartuko diot, eta besteek, hori ikusi eta gero, korrika hanka egingo dute.

Arthur logelako ispilu aurrean jarri zen, eta irribarre xume bat margotu zitzaion ezpainetan. Aitaren antza zeukan, batez ere, ispiluan eskegitako argazkian. Semeen artean,

/ Ipuina

BI TXERRIKUMEAK

bera aitaren kutunena zen, agian, azkena zelako, agian, bere antza zeukalako. Besteek amaren antza zeukaten. Arthurrek amaren antza izan nahi zuen, anaiek bezala, eta bere aita maite bazuen ere, ama, ama zen.

Bere aita arotza zen, eta bere aitite ere bai. Horrek, Frantzia-Prusia gerra bukatu ondoren aroztegi zahar bat erosi zuen, eta harrezkero, Scholz familian egon zen. Aroztegia, beti, zutik mantendu zen. Baina gero Bigarren Munduko Gerra etorri zen, eta dena galdu zuen Scholz familiak. Hasieran, gerra hasi berritan, bere aitak aroztegian jarraitzen zuen, ez zitzaizkion armak gustatzen, eta lau seme zeuzkan jaten emateko. Armadaren soldata oso txikia zen, eta ez zitzaion interesatzen, baina gero soldadu batzuk etxean agertu ziren, eta haiekin joan behar izan zuen. Egoera horretan ezin zen aukeratu, gerrara joan edo gerrara joan, horiek ziren aukerak.

—Zer? Ipuina irakurtzen jarraituko dugu? —galdetu zion Arthurrek erretorikoki. Esku zikinekin liburua zabaldu zuen.

"*…anai nagusiaren etxera heldu zen otsoa. Hiru txerrikumeek ate guztiak eta leiho guztiak ondo itxi zituzten. Otsoak, putz eta putz egin, baina adreiluzko etxea ez zuen bota. Otsoa etxeari bueltak ematen hasi zen, barrura sartzeko leku baten bila. Eskailera luze batekin teilatura igo zen, tximiniatik sartzeko, baina, lehen, anaia nagusiak lapiko batean ura irakiten laga zuen. Otsoa tximiniatik jaitsi zenean urarekin erre egin zen…*".

Arthur, berriro, leihora hurbildu zen, zabaldu eta kalearen bi aldeetara begiratu zuen. Ez zegoen inor. Hutsik. Bat-batean, Arthur kaleko putzuez ohartu zen. Putzuetako urak uhinak margotzen zituen. Bazter batetik zetorren zarata hotsak Arthurri atentzioa eman zion. SESBeko armada sartzen ari zen. Lehenengo tankeak, eta atzetik ehunka soldadu. Burua sartu, eta amarengana joan zen.

—Ama, etorri dira, baina lasai, aitatxo bezala haien kontra borrokatuko naiz. Ez zaituzte ukituko —esan zion.

Barrikada berrikustera joango zen. Dena ondo zegoen ipinita. Igotzean, Ulrrichen etxean sartu zen, eta nahi zuen hiztegi lodia hartu zuen. Amarengana joan zen, eta pistola ohe gainean laga zuen. Berriro, isil-gordean, leihotik so egin zuen. Oso gertu zeuden. Arthur bere amaren atzean jarri zen, amaren babesa nahi zuen, pistola indarrez hartu, eta atera apuntatu zuen. Horrela geratu zen hogei minutuz, baina aspertu egin zen, eta leihora joan zen. Ez zien entzuten soldaduei, eta leihotik ikusi nahi zuen. Burua atera zuen, eta konturatu zen oraindik asko falta zela soldaduak ailegatzeko.

—Ama, gu gara hiru txerrikumeak, eta soldaduak otsoa dira. Bueno bi gara, aitatxo falta da, hirugarrena, baina lasai, ez dira sartuko —esan zion lasaitasunez urduritasuna mozorrotzen.

Eguraldi kaskarrak bere horretan jarraitzen zuen, euri fina eta hodei beltzak. Hotza. Soldaduak, poliki, etxera hurbiltzen ari ziren. Soldaduek etxez etxe kale osoa miatzen zuten. Etxez etxe, gelaz gela. Poliki poliki, izurik gabe. Arthurrek beste aulki bat jarri zuen barrikadan, sendotzeko sarrera, trabak ipintzeko. Gero Ulrrichen etxera joan zen, eta orri bat eta arkatz bat hartu zituen. Amaren ondoan jarri, eta ohar triste bat idatzi zuen, haren aurpegira begira. Malkoek logelan distiratu egin zuten.

—Ama, jada ez daukagu tximiniarik, bonbardaketak bota zuen. Orduan hortik ez dira

sartuko, atetik bakarrik sar daitezke, eta hori ondo trabatuta dago. Azkenean nekatuko dira, eta soldaduak beste etxe batera joango dira, ikusiko duzu —eta oharra bere eskuen artean laga zuen.

Soldaduek eraikineko atea jo zuten. Inork ez zuen zabaldu. Arthurrek zarata entzun zuen, eta zutik jarri zen. Ez zegoen atzera bueltarik, patuak dena erabakita zeukan. Izerdia bere gorputzetik ur-jauzi bat izango balitz bezala jausten zen. Urduri zegoen. Amari begira, bere bizitzako oroipen guztiak pilatzen ziren bere buruan. Ezin zituen nerbioak kontrolatu. Praketan txiza egin zuen. Behean, ahotsak eta kolpeak entzuten ziren. Azkenean, eztanda batekin atea zabaldu zuten. Arthur amaren belarrira hurbildu zen, barnean jaio zitzaion tristura itzela, "*Maite zaitut ama, betirako*". Soldaduek barrikada baztertu zuten, eta igotzen hasi ziren.

PUUUMMMMM!!!!

Arma baten soinua. SESBeko soldaduak beldurtu egin ziren eta atzera egin zuten. "*Azkenengo solairuan nazi bat dago*" esan zuen soldadu batek. Ordu erdi itxaron eta gero, komando berezi bat eraikinera sartu zen. Poliki-poliki etxe guztietako gelak miatu zituzten. Azkenengo solairura heldu ziren, eta esplosibo batekin etxeko atea bota zuten. Sartu egin ziren. Soldadu batek garrasi egin zuen:

—Hemen, topatu ditut! Hau ikusi egin behar duzue!

Soldaduak, txundituta, logelako atean pilatzen ziren. Ohean Henriette, burua burkoarekin estalita, eta bere esku herdoiltsuen artean, ohartxo bat. Arthur lurrean, bere burutik odol erreka zerion; ondoan, esku batekin ondo helduta; Ulrrichen pistola, beste eskuan; hiztegi bat; alemana-errusiarra.

Logela hotz hartan inork ez zuen ezer esaten. Soldadu bat amarengana hurbildu zen, eta oharra jaso zuen. Zabaldu eta irakurri egin zuen:

Пожалуйста, похороните мою маму

Eskaileratik ahots batek galdetu zuen:

—Aizue! Zer pasatu da?

—Itxuraz, hamabi bat urteko mutiko batek bere ama ito egin du, eta gero bere burua hil du! —oihukatu zuen logelako soldadu batek—. Ohar baten bidez, bere ama lurperatzeko eskatzen digu! Zer? Lurperatuko ditugu?

Handik gutxira, behetik, beste soldadu batek erantzun zuen:

—Jeneralak esan du ezetz! Eraikineko kontu honekin denbora galdu dugu, eta Berlin amerikarrek baino lehen menderatu behar dugu!

Eta han geratu ziren Arthurren eta Henrietten gorpuak. Hamar egun geroago, garbiketa brigada batek gorpu ustelak jaso zituen, eta hobi komun batera bota zituen. Behintzat, Arthurrek nahi zuena lortu zuen, eta bere amaren ondoan geratu zen betirako.

Haurtzaroa ez da iguala umeen artean. Batzuk, nahi eta ez nahi, oso azkar hasten dira, istant batean heldu bihurtzen dira. Bizitza ez da bidezkoa. Jaiotze lekuaren arabera, errealitate batean edo beste batean bizi zara. Horixe pasatu zitzaion Arthurri. Baina, berari galdetu izan baliote, ez zukeen ezer aldatuko bere amarekin egoteagatik.

Aurkibidea <<

POESIA

Bosgarren taldea

1. saria

Egilea: ***Selene De Los Reyes***

IZENBURUA

Pertsona ederrak



/ Poesia

PERTSONA EDERRAK

—Zergatik dira pertsona onenak min gehien hartzen dutenak?
galdetu zuen neskak
—Lorategira zoazenean, zer lore hartzen duzu?
erantzun zuen amak
—**Ederrena**.

Pertsona politak ez dira bakarrik janzten
aurpegi perfektuekin, ederrekin edo markarik gabeko larruekin,
Argia ez da dirdiraren menpe,
itzal eta fartsaz jositako ispilu bat da.

Pertsona ederrak barre egiten dutenak dira
begi lasaiekin, arima irekiekin,
mundua beldur gabe besarkatu
zenbat maitasun geratzen zaien bularrean, neurtu gabe.

Bitxirik gabe distiratzen dute
urrerik gabe
beren ternezia galtzeko beldurrik gabe,
begiekin sendatzen dutenak,
isiltasuna ulertzen dakitenak.

Pertsona politak ez dira posatzen dutenak
marmolez eta eztiz landutako gorputzekin,
besteen arima pizten dutenak baizik,
gure ariman bere arrastoa utziz.

Polita da begi zintzoekin begiratzen duena,
begi sakonekin
begirada sakonarekin, galderarik gabe
itxaroten dakiena.

/ Poesia

PERTSONA EDERRAK

Edertasuna ez da, gure arimaren erreflexu hutsa,
bere arrastoa uzten duen bihotza da
gure gorputzean arrastoa lagatzen duena
taupada bakoitzean
begirada bakoitzean
egia bakoitzean.

Pertsona onak astiro ibiltzen dira,
presarik gabe, zahar baten bezala
zaratarik gabe,
arbuio faltsurik gabe.
Ez dute ihes egiten
bere distira zintzoa da,
bere argi naturala.

Eskuetan haize-laztanak eramaten dute,
keinu eta besarkada arretaz besarkatu.
Ez dute galdetzen zenbat, ez dute eskatzen
zergatik
neurririk gabe ematen dute,
galtzeko beldurrik gabe.

Pertsona onek eusten diote zeruari
munduak min ematen duenean,
kontsolamendurik ez dagoenean.
Itsaso ilunetako baretasun argiak dira,
kontsolamendua negarretan,
beroki segurua.

Bere barrean hiltzen ez den eguzki bat bizi da,
bere ahotsean,
munduak bere pena galtzen du.
Ez dute zauritzen,
ez dute epaitzen, nahiago dute sendatu,
eskua luzatu, entzuten jakin.

/ Poesia

Indarrak dira itzalean,
bakea dira gerran,
lurra besarkatzen duten sustrai sakonak.
Bestea altxatzen dute,
ezer eskatu gabe,
keinu sinple batez, begirada batez.

Pertsona onak urrezko mineralak dira
mundu hautsi baten pitzadurak josten dituztenak.
Ura da zuhaitzean,
sustraiak besarkatzen dituzte,
kiskaltzen duten lurretan, bizi-hondarra.

Eta ekaitzak bere norabidea galdu bazuen ere,
eta badirudi mundua hotzago bihurtzen ari dela,
aurrera jarraitzen dute, erortzeko beldurrik gabe,
zeren egintza bakoitzean bere maitasuna berokia baita.

Batzuetan ezkutatu egiten dira, beste batzuetan isildu.
baina haren begiradan maitasunak ez du hutsik egiten.
Eta gutxi badira ere, eta mina ere bai
itzali nahi ditut, kemenez jarraitzen dute.

Zeren keinu bakoitzean,
taupada bakoitzean,
pertsona onek zaratarik gabe ematen dute dena.
Piztutako sugarrak dira, inoiz itzaltzen ez direnak,
gauean faroa,
besarkatzen duen arima.

Eta alde egiten dutenean, haien arrastoa betierekoa da,
lurraren azala musukatzen duen eguzkia bezala.
Maitasun neurrigabea oparitzen duenak
ez da inoiz iraungitzen, bizitzan irauten du.

Aurkibidea <<

POESIA

Bosgarren taldea

2. saria

Egilea: ***Leire Martin***

IZENBURUA

Egun gris eta urdinak



/ Poesia

EGUN GRIS ETA URDINAK

Egun gris batean
iratzargailuak betiko
doinu gogorra jo du.

Zarata biolentoak
ohe gainetik mugitu du
egun hasieran beti
murgilduta egoten den
nekearen mantuan
sartutako gizona.

Gizon arruntak bizitza arrunta.

Kafe arruntak neke mantutik
ateratzen duen bitartean,
sentipen urdin batek
bere gorputza bereganatzen du.

Gorbatak lepoa estutu,
maletarekin gorputza
pisutsu dago.
Metrorako bidea hartzen du
sentimendu urdinezko
egun grisean.

Jendez betetako metroan,
gizonak jende gaztea
ikusten du beti,
beraien egunerokotasun
propioarekin.

Ametsez betetako egunerokotasuna.
Txoriz betetako egunerokotasuna.
Ez bere egunerokotasun gris-urdin iluna.

/ Poesia

EGUN GRIS ETA URDINAK

Metrotik arin irten
eta gizon arrunta lanera
pauso azkar eta sendoaz,
kanpoko hotzetik ihesi dabil.
Baina enpresa barneko
pareta monokromatikoetan
hotza oraindik handiagoa da.

Jendez betetako igogailuak
bere bulegora darama
gizon arrunt-arrunta.
Eremu txiki horretan
arnasa hartzea kostatzen zaio.

Igogailu izeneko
kartzela mugikorretik irten
eta munduko tokirik tristeenean
agertzen da gizon arrunta:
beste gizon-emakume arruntez
osatuta dauden bulegoen parean.

Pareta zuriek egoera beltza
argitzeko saiakeran
toki artifizial eta irreal bat
sortzea lortzen dute.

Benetan, tokia ez da
horren tristea edo beltza
baina gizon arruntaren
sentimendu urdinak
begirada hori eskaintzen dio.

Sentimendu urdina
oso indartsua da
noiz izan zen azken aldia
gizon arrunt arruntak

filtro urdina erantzi zuela?
Gizon arruntak bere betiko
laguna ateratzen du
ordenagailu modernoa.
Tresnarekin, egunean zortzi orduz,
bere lana egin,
bere barneko excel berde
eta korreo elektronikoaren laguntzaz
(ordu estrak kontatu gabe)
(noiz kobratuko ditu, ordu estrak?)

Ordenagailua itxi
eta gogoeta egiten du,
egunean lehen aldiz
"Orain dela asko ez diodala
amari deitzen" pentsatzen du.

Sakelakoa atera eta
zenbaki bat markatzen du.

Hamar segundo isilik,
telefonoa belarrian,
bihotza eztarrian.

Amore ematear dagoenean,
gizon arruntak ahots gozo bat
entzuten du, amaren ahotsa.

Bere amaren ahots alaiak
bere sentimendu urdina
momentu batez bada ere
alde batera uzten du.

Gizon arruntak, momentu batez,
norbaitentzat berezia dela sentitzen du.

Aurkibidea <<

POESIA

Bosgarren taldea

3. saria

Egilea: ***June Tabares***

IZENBURUA

Amaren malkoak



AMAREN MALKOAK

Hiru txito ama berarenak,
hiru txito sehaska berarenak.
Txitoak negarrez egoten ziren gose zutenean,
txitoak negarrez egoten ziren ilargia erortzen zenean.

Amak hirurei zerbitzatzen zien kexarik gabe,
hezurrak minduta izan arren,
arima minduta izan arren.

Osasuntsu eta indartsu hasi ziren txitoak,
ahalegin eta arduraz jasotako zaintzagatik.
Baina orain ama zen gose zena,
orain bera zen negarrez zegoena.

Eta jaio zituen hiru dohakabeetatik,
bat bakarra zen bere ondoan zegoena.

Amak negar egiten zuen semeen ongizateagatik,
amak sufritzen zuen maitatzeagatik,
kezkatzeagatik, ama izateagatik.

Berak ez du esaten "Maite zaitut",
bere maitasuna erakusten du zeruari eskatuz,
bere hiru txitoei zerbait gertatzen bazaie,
hobe berari gertatzeko,
haiek merezi ez zutelako.

Ahaleginak egin arren,
ama nekatuta, minduta eta pixka bat "galduta" zegoen.

Orain txitoek bera zaintzeko garaia zen,
beraiekin egin zuen bezala maitatzeko eta babesteko garaia zen,
orain da amari erakusteko ordua,
berak egindako esfortzu guztiak merezi zuela.

/ Poesia

AMAREN MALKOAK

Orain erakusteko garaia zen
haiek bizitza onena izan zezaten, isuritako malko guztiek
merezi zutela frogatzeko.

Guztien harridurarako, txikiena zen bakarra berarekin zegoena.
Txikiena zen zaintzen zuena
bera kontsolatzen zuena,
bere ama, gaixoak, lo egin ezin zuenean,
bere dei guztiak hartzen zituena.

Lotsagarria, lotsagarria bakarrik hiru txitoetatik
gazteena izatea berari maitasun gehien erakusten ziona.
Non zeuden besteak?

Non zeuden bere beste bi txitoak?
Non zeuden?
Erantzuna erraza zen.
Zaharrenak habia utzi zuen,
baina ez aldameneko habia batera,
urrutiko habia batera.

Oso urrun, hain urrun, ama ikustea ezinezkoa.
Erdian zegoena axolagabea, bihotzik gabekoa,
lan guztia txikiari utziz.

Baina hala ere, hark segi,
gogotsu eta eder.

Amari dena eman zion,
amari beti lagundu zion.
Egunez egun janaria,
hilabetetan sendagiria
eta urte batez maitasun bizia.

/ Poesia

Baina, hala ere, amak beti zion berdina.
“ Zu eta zure anaiak BERDIN maite ditut.”

Nola esan zezakeen horrelakorik,
bakarrik hark erakutsi bazion benetako maitasunik?

Bihotza minez, gutxietsia sentituz,
amari galdetu zion, negar-malkotan,
“ Ama, zergatik maite dituzu traidore horiek,
zure egoera gorabehera, inoiz ez baitute pentsatu
zugan.”

Ama erantzunik gabe,
isiltasun mingarri bat lagatzen,
zer esan zezakeen, egia borobil bat bazen?

Amaren maitasuna ezin zen itzali,
nahiz eta bere beste bi txitak horrelakoak izan.

Ama baten maitasuna zuria, bakarra, garbia zen.
Ez du baldintzarik, ez du garairik.

Eta amak erakutsi zuen bere sentimendua,
negar eginez, emoziorik zintzoena erakusten.

Aurkibidea <<

BERTSOA

Lehenengo taldea

Saria

Egileak: ***Aranzadi ikastolako 5-Bko ikasleak***

IZENBURUA

Gure bihurrikeriak



/ Bertsoa

GURE BIHURRIKERIAK

Kontatuko ditugu
bihurrikeriak
batzuk gezurrak dira,
besteak egiak
"Tokatinbre" egiten
gabiltza ederto
hori egiten dugu
denak esnatzeko
Etxean geundenean
aldatu ordua
geroztik hankaz gora
daukagu mundua
Azukrearen ontzian
bota egin dugu gatza
eta egin diegu
gurasoei txantxa
Autoaren atzean
lata batzuk lotu
kotxeko gidaria
ez da konturatu
Gu oso pozik gaude
udalekuetan
laguna margotu dut
dagoela lotan

Aurkibidea <<

BERTSOA

Lehenengo taldea
Saria

Egileak: ***Elixabete Gabilondo, Martin Gabilondo eta Mariñe Gabilondo***

IZENBURUA

Gurasoak



GURASOAK

(Orioko balearena)
Ama nahiko lasaia
aita kirolari
Beti bien artean
maitasun ugari
Gu etorritakoan
gugan adi-adi
Ohera joandakoan
muxuak opari

Dena hartzen duzue
zuek bioren gain
Kalean gaudenean
itxuraz umezain
Maite zaituztegu, bai
zuek gu bezain lain
Eskerrak emoteko
gaude hemen orain

(Ai gure antzinako)
Batzuetan ez gara
izaten baketsu
Askotan ez dizugu
egiten guk kasu
Horregatik mesedez
guri barkaiguzu
Jatorrak ta leialak
gara onartuizu
Munduko aitatxorik
onena zara zu

Umeak eukitzeko
zu beti gogotsu
Eta euki ta gero
zu bai zoriontsu
Beharra dugunean
lagundu diguzu
Hitz egin dugunean
entzun egin duzu
Munduko amatxorik
onena zara zu

BERTSOA

Lehenengo taldea

Saria

Egileak: ***Mariaren Lagundia ikastolako 4. mailako ikasleak***

IZENBURUA

Gabonak bertsotan



/ Bertsoa

GABONAK BERTSOTAN

Aurkezleak:
Eguberri eguna
ailegau da eta
haurrak Bergaran dare
irrikaz beteta.

Ipotxak San Martzialen
galduta dabiltza zuhaitz
taldetxo bati
doiazte galdezka.

Ipotxak:
Mari Domingi, Napo
Olentzero ere
esango doskuzue
faborez nun dare?

Zuhaitzak:
Esango dotsuegu
baldintza batekin
ondo portau ezkero
guztiok gurekin.

Zuhaitzik ez ebaki
ta errespetatu
ezker aldetik jun ta
bidea jarraitu.

Aurkezleak:
Ipotxak aurrera
dijoaz bidean
ea laister ditugun
somatzen gurean.

Ipotxak:
Mari Domingi, Napo
Olentzero ere
esango doskuzue
faborez nun dare?

Txoriak:
Esango dizuegu
baldintza batekin
animali guztiak
bizi ga elkarrekin.

Orduan guk nahi dugu
ondo tratatzea
hobeto izangozue
beherantz bajatzea.

Aurkezleak:
Ipotxak aurrera
dijoaz bidean
ea laister ditugun
somatzen gurean.

Ipotxak:
Mari Domingi, Napo
Olentzero ere
esango doskusue
faborez nun dare?

Erreka:
Lagundukotzuegu
agindu batekin
ez nahastu zaborra
gure urarekin.

Erreka bazterretik
jarraitu aurrera
holaxe helduko zate
bai leku onera.

Aurkezleak:
Ipotxak aurrera
dijoaz bidean
ea laister ditugun
somatzen gurean.

/ Bertsoa

GABONAK BERTSOTAN

Ipotxak:
Mari Domingi, Napo
Olentzero ere
esango doskusue
faborez nun dare?

Baserritarrak:
Laguntzeko prest gaude
baina ondo entzun
bertako produktuak
erosi ditzagun.

Ta gure baserria
azkar zeharkatu
bidea jarraitu ta
baietz han aurkitu.

Olentzero, Mari Domingi
eta Napo:
Kezkatuta geunden gu
non sartu zarete?
Gure Herriko haurrak
ditugu presente.

Opariak banatzera
goaz azkar-azkar
bestela gure haurrek
eingo dabe negar.

Haurrak:
Eskerrik asko denei
opariengatik
zuengatik ez balitz
malkoak begitik.

Gure Mari Domingi
eta Olentzero
hurrengo urtean ere
etorri berriro.

Ipotxak:
Azkenean topatu
dogula bidea
ta naturari esker
haurrak poztutzea.

Amaiera,
guztiok batera:
Errekatan ur garbiak
eta hegan hainbat txori
zelaietan loreak ta
zuhaitzak sendo ta lodi
baserrietan baratzak
amimali bat edo bi
hango produktu bikainak
eskeintzeko guztiori
urte guztian natura
zaindu behar dugu ongi
eta Gabonak direnez
ez ahazteko inori
Merry Christmas ta Bon Nadal
besarkada bana tori
Feliz Navidad edo ta
Eguberri on denori!

BERTSOA

Lehenengo taldea

Saria

Egileak: ***San Martin Agirre herri eskolako 5-Bko ikasleak***

IZENBURUA

Estereotipoak



/ Bertsoa

ESTEREOTIPOAK

(Doinua: Txankete)

1
Gaur egun asko daude
estereotipoak
Ta gu aurkezten gara
haien aurkakoak

2
Kotxeak mutilentzat
"Barbie"ak neskentzat
hori betikoa da
Dena da denentzat

3
Mutilek dute beti
fama kirolean
alde batera utziz
neskak normalean

4
Mundu handi honetan
zientziari begira
famatuenak beti
gizonezkoak dira.

5
Lanbide desberdinak
gizarte honetan
Ta generoa berriz
eragin horretan

6
Estereotipoei aurre
egingo diegu
nahi duguna
izaten jarraituko degu

Aurkibidea <<

KOMIKIA

Lehenengo taldea
Saria

Egileak: ***Itzal Alvarez, Zorione Fernandez eta Maddi Lopez***

IZENBURUA

Galtzerdi galduen txokoa



GALTZERDI GALDUEN TXOKOA



/ Komikia

GALTZERDI GALDUEN TXOKOA

/ Komikia

Behin batean, barzegoen katu bat, Lilo izena zuena. Lilori asko gustatzen zitzaion galtzerdiak jatea.

Minutu batzuk geroago, galtzerdiak desagertu egin ziren.



1

/ Komikia

GALTZERDI GALDUEN TXOKOA

Lilo galtzerdien bila joan zen kaleran.

Lilo triste zegoen, ez zituelako bere galtzerdiak bilatzen. Hurrengo egunean, munstro batekin elkartu zen. Eta zerbait esan zion

②

/ Komikia

Aste batzuk geroago, galtzerdiak ez ziren agertzen.



Lilo eta munstroa gauza galduen txokora joan ziren.



3

/ Komikia

GALTZERDI GALDUEN TXOKOA



/ Komikia

Munstroa berari barkatzeko eskatzen eta oskatzen zegoen.

Azkenean Lilok barkatu egin zion.



S

/ Komikia

GALTZERDI GALDUEN TXOKOA




PERTSONAIAK!
ETA
MUNSTROA
Munstroa bordea da.
eta 7 urte ditu.
1m eta 20cm ditu
eta Lilaren laguna da.
LILO
Lilo katu bat da.
Lilak ile beltza du
eta oso trikia da
8 hilabete ditu eta
27cm neurtzen ditu.
7

Aurkibidea <<

KOMIKIA

Lehenengo taldea
Saria

Egilea: ***Jon Larrañaga***

IZENBURUA

Bit saguzar itsua



/ Komikia

BIT SAGUZAR ITSUA

/ Komikia

BIT SAGUZAR ITSUA

KOMIKIA

Bigarren taldea
Saria

Egileak: ***Eider Bote, Maddi Torres eta Alaia Zabalo***

IZENBURUA

Graffitiak



GRAFFITIAK



Aurkibidea <<

KOMIKIA

Bigarren taldea

Saria

Egileak: ***Maren Cenitagoya eta Ane Urzelai***

IZENBURUA

Ikuskizun berezia



IKUSKIZUN BEREZIA

Aurkibidea <<

KOMIKIA

Bigarren taldea
Saria

Egileak: ***Beñat Egidazu eta Liher Sanchez***

IZENBURUA

Elkarlanean aurrera



ELKARLANEAN AURRERA

Aurkibidea <<

KOMIKIA

Hirugarren taldea

1. saria

Egilea: ***Maite Txintxurreta***

IZENBURUA

Jon Maia tabernan



JON MAIA TABERNAN



/ Komikia

JON MAIA TABERNAN

Aurkibidea <<

KOMIKIA

Hirugarren taldea
2. saria

Egilea: ***Gari Garitano***

IZENBURUA

Ordua



/ Komikia

ORDUA

Aurkibidea <<



KOLDO ELEIZALDE
lehiaketak 2025

XL. edizioa

Bergarako Udala